

## Bernardo Atxaga

'Euskal hiria'-z eta bestez jardun dugu  
KULTURA, 26



## UDAK irabazi du Aloñaren aurkako derbia

2-1 gailendu dira aretxabaletarrak;  
Mondrak 1-0 irabazi dio Ordiziari  
KIROLA, 12-13

## Danbaka lehiaketa

Laugarren saioa izan zen barikuan  
KULTURA, 20-23



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko abenduaren 4a • 3. urtea • 125. zenbakia • 0,90 euro

Barruan,  
Bergara Kirol  
Elkartearen  
futbol  
posterra



## Euskararen Egunak erantzun zabala izan du gurean

*'Euskaraz bizi, is beri isi' lelopean hainbat euskaltzalek euskararen erabilera aldarrikatu dute*

**BERGARAKO AEK**  
Bergarako AEKn irakasten hasi zirenek omenaldi xume bezain hunkigarria jaso zuten Bergarako euskaltzaleen eskutik

**TALOKA ETA ABESTIAK**  
Antzuolan talo jana egin zuten atzo eta Eskoriatzan kantu bazkaria, beste gauza batzuen artean

Debagoienean ere erantzun zabal izan du Euskararen Nazioarteko Egunak. Beste urte batez, euskaltzaleak euskararen erabilera eta normalizazioa aldarrikatzera atera dira kalera.

**ZAHAR BERRI**  
Arrasaten Zahar Berrikoek jaso zuten omenaldia; AEDkoek Felix Iturberen zurezko pieza bat eman zieten

**ERABILERA**  
Euskararen normalizazioan hartu behar diren neurriak eta erabilera aldarrikatu zituzten taldeek eta eragileek

Horretarako, Debagunek, euskara elkarten Debagoieneko elkargoak, egun hori ospatzeko aukeratutako leloa aldarrikatu dute ibarrean barrena hainbat ekitaldiren bitartez. 4-5



Arrasaten Zahar Berriko kideak omendu zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

## Herritarrek lagunduta abiarazi dute KMK'07

Barikuan, mila bat herritarrek erakutsi zieten Aranzadi ikastolakoei berotasuna. Jaialdia herrikoa eta bihotzekoa izan zen. 2-3

## Ordubeteko lanuztea deitu dute biharko Antzuolan 9

## Etxebizitza eskuragarriak Arrasaten

Alokatzeko merkeagoak diren 148 etxe egiten hasi dira 6

S-MAX your life.



Ford S-MAX berria. Urteko Autoa 2007an Europan

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE



**SUPER AMARA**

**DENAK GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Apartakalekua

# GEUREAN

- Zilarrezko 'Q'-a eman diete MÜren Enpresa Zientzien fakultateari eta Ulmaren forja negoziari | 7
- Elkartasun erakusketa zabaldu berri du Harreman-ek Arrasateko Monterron kultura etxean | 9

Ibarreko merkatariak, Zabaletan egitekoak diren gunearen aurka | 9

## KILOMETROAK'07-REN AURKEZPEN JAIALDIA



JOSETXO ARANTZABAL

Jaialdiko unerik politenetakoa eta txalo gehien jaso zituena izan zen ikastolako guraso, ikasle eta irakasleek moda desfilea egin zutenekoa.

### Zenbakiak

# 1

Barikukoa lehen ekitaldia izan zen. Urrira bitartean dozenaka antolatuko dituzte Aranzadikoek.

# 135

Ehun bat lagunek hartu zuten parte jaialdian eszenatoki gainean. Guztia antolatzen, berriz, beste 35 bat ibili ziren.

# 1000

Mila herritar inguru batu ziren egubakoitzean Bergarako Jam aretoan egindako aurkezpen jaialdian.

# 44

Barrenkaleko 44. zenbakian dago Kilometroetako denda. Desfilean erakutsitako arropa eta beste hainbat dago salgai.

KILOMETROAK'07 | BERGARAKO ARANZADI IKASTOLAK IRUDIA, MEZUA ETA ARROPA AURKEZTU ZITUEN BARIKUAN JAM ARETOAN

# Argi daukagu Aranzadi ikastolak ilusioz eta indartsu ekin diola

*Mila bat herritarrek egin zuten bat barikuan Kilometroak'07ren aurkezpen jaiarekin*

*Jantzi eta osagarri ugari eta moda-modakoak erakutsi zituzten egun batez modelo bihurtutako herritarrek*

Monika Belastegi

*Argi daukagu.* Horixe da Aranzadi ikastolak Kilometroak 2007rako aukeratu duen leloa, eta hura irudikatzen duen bonbillaren filamentua. Egubakoitzean aurkeztu zituzten herritarren aurrean Jam aretoan egindako jaialdian. Horrekin batera, udaz-

ken-neguko arropak ere erakutsi zituzten, modelo desfilea eta guzti. Ordubete pasatxo iraun zuen jaialdiak eta mamitsua izan zen: mezua, logoa eta jantziak erakusteaz gain, bertsolariak, trikitilariak, dantzariak eta musikariak ere egon ziren.

Han batu ginen mila bat herritarrok hainbat gauza oso argi

genituela atera ginen Jam aretoetik: argi daukagu Aranzadi ikastolak esfortzu handia egin behar duela urrira bitartean jai antolatzen, baina argi daukagu, baita ere, ilusioz eta gogoz dihardutela eta indarra badutela.

### AMETSA BETETA

Julen Osinaga umeak eman zion hasiera ekitaldiari, ilunpean. Bere ametsaren berri eman zigun. Kontatu zigun nola entzun izan dien guraso eta aitona-amonei duela 15 urte Bergaran Kilometroak ospatu zirela eta zein ondo ibili ziren. Bat-batean argia piztu zen berriz: *Argi daukagu* Kilometroak'07ko leloa irudikatzen duen filamentua ikusarazi zuten, herritarren txalo artean. Osinaga umearen ametsa bete egin da, Kilometroak jai berriz ere herrian.

Aranzadi ikastolako presidente Angel Mari Egurenek hartu zuen hitza ondoren: "Ikasturte berezi eta itxaropentsua da hau", esan zuen, "herritarrekin elkarlanean jarduteko aukera

**Jaialdia herritarra eta espontaneo izan zen, "Aranzadi ikastola bezala"**

**Aranzadiko presidente Angel Mari Egurenek itxaropentsutzat jo du ikasturte hau**

izango dugulako". Kilometroen helburuak ere aipatu zituen: ekonomikoak batetik, "Errege Mintegiko eraikina berritzen ari garelako". Baina euren nahia haratago doala ere gehitu zuen eta gogora ekarri zuen Aranzadi "herritik sortu zela, herriarendako lanean ari dela eta horretan segi nahi duela".

### HERRITARRA ETA ESPONTANEOA

Eduarne Azuara eta Oihan Vega aurkezleek esandako moduan, herritarra eta espontaneo izan zen jaialdia, "Aranzadi ikastola bezala". Parte hartu zuten musika, dantza eta bertsolari guztiak herrikoak ziren; baita modelo lanetan jardun zutenak ere. Arropa eta osagarri oso politak erakutsi zituzten. Haiek eta beste hainbat Barrenkalea 44an egokitu duten dendan aurki daitezke.

KILOMETROAK'07-REN AURKEZPEN JAIALDIA

• BERTSOAK, MUSIKA, DANTZA ETA MODA DESFILEA



**EUSKARA MODAN**

Hasierako agurraren ostean jardun zuten bertsoan, txandaka, Eñaut Uriartek eta Iñigo Arzelusek, diskotekako go-go-ek dantza egiteko erabiltzen duten oholtzatik. Euskaren eta parte-hartzearen garrantzia nabarmendu zuten, besteak beste, Kilometroak'07ko leloaz baliatuta. "Argi daukagu euskara modan jarri behar dugula", esan zuen Eñaut Uriartek, eta Kilometroak jaia antolatzeak dakarren lan handiaren harira zera esan zuen Iñigo Arzelusek: "Argi daukagu denok behar dugula honetan jarri indarra".

• MEZUA ETA ARROPA GUSTUKO DITUZTE




**FERNANDO, OLATZ ETA MIKEL | BERGARA**

Oso polita iruditu zitzaion hirukote horri jaialdia, baita arropa ere: "Adin guztietarako arropa egin dute, eta moda-modakoa", esan ziguten. Horrekin batera, logoa eta leloa ere izugarri gustatu zaizkiela aitortu zuten: "Buruan berehala geratzen den horietakoa da leloa". Mahaster River taldeko kideak dira eta ekitaldian musika saioa egin zuten, azken baten "hori eta gehiago merezi duelako euskarak".

**MODA-MODAKO ARROPA**

Udazken-neguko jantzi eta osagarriak erakusteko moda desfilea bi ataletan banatu zuten: lehenengoan, herriko pertsona ezagunek jardun zuten modelo lanean, eta dotore aritu ziren: Aitor Elkoro pilotaria, Juan Luis Bikuña kazetaria, Juan Martin Elexpuru idazlea, Aitor Zabaleta auto gidaria, Arrate Bengoa pediatra, Jesus Alberdi *Egileor* bertsolaria, Jone Salegi antolaketakoa eta Pello Garitano, Lokatza Ziklismo Eskolako. Moda-modakoa da arropa kolore zein diseinu aldetik, adin guztietara egokitu-takoa eta oparoa -zapatak izan ezik denetarik dago, goitik behera janzteko moduan-.



**IKER ETA JOKIN | BERGARA**

Jokin Etxaniz pilotariak Iker semearekin hartu zuen parte desfilean. "Modelo lanetan baino, hobe dut bizimodua beste modu batera atara", aitortu zuen ibiltokitik jaitsi ondoren. Lotsa apur bat ere pasatu zuela esan zuen, "baina euskaren alde hori eta gehiago" egingo lukeela ere gehitu zuen. Bi semeak, gainera, Aranzadi ikastolan ditu ikasten pilotari bergararrak.



**MUSIKA ETA DANTZA.**

Jaialdian esan zuten moduan, argi geratu zen euskal kulturak baduela etorkizunik Bergaran. Batetik, Jardun euskara elkarteko trikitilariak eta Moises Azpiazu dantza taldeko gaztetxoek fandangoa eta arinarina egin zituzten. Horrez gain, Emon taldeko hainbat kidek ere musika emanaldia egin zuten doinu tradizional eta garaikideak uztartuz, eta, jaialdiari amaiera emateko, Edu Muruamendiarrak -Aranzadiko ikasle izandakoa da- dantzari eta Aukeran taldeko zuzendari eta koreografoak aureskua egin zuen, bere ohiko dotoreziarekin.



**EDURNE ETA IKERNE | BERGARA**

Aranzadi ikastolako irakasle dira Edurne eta Ikerne. "Guztia aurreikusitako bezala joan da", esan ziguten, "eta oso pozik gaude". Arropa ere oso polita iruditu zitzaion, "adin guztietarako eta betikotik aldentzen dena". Urriko Kilometroak jaira bitartean duten lanari dago-kionez, "gogo betez" daudela azaldu zuten eta datozen hilabeteetarako ikuskizun asko prestatzen ari direla aurreratu zuten.

**Aretz**

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA | ERANTZUN ZABALA IZAN DU EUSKARAREN EGUNAK DEBAGOIENEAN

# Euskararen erabileraren alde egin dute apustu debagoiendarrek

*Bergaran aste bukaera osoan egin dituzte ospakizunak: zapatuan bazkaria eta atzo omenaldia*

*'Euskaraz bizi, is beri isi' lelopean euskararen erabilera bultzatu gura izan dute ibarreko euskaltzaleek*

Arantzazu Ezkibel

Debagoienez ere erantzun zabalak izan du Euskararen Nazioarteko Eguna; izan ere, beste urte batez, euskaltzaleak euskararen erabilera eta normalizazioa aldarrikatzera ateratu dira kalera. Horretarako, Debagoienez, euskara elkarten Debagoieneko elkargoak, egun hori ospatzeko aukeratutako leloa *Euskaraz bizi, is beri isi* izan da. Hain justu, aurten aldarrikapena euskararen erabilera bultzatzea izan da.

**BERGARAN HERRI BAZKARIA EGIN ZUTEN, MUNIBE PLAZAN** Debagoienez, Bergaran, Arrasaten eta Eskoriatzan egin dituzte ekitaldi nagusiak.

Bergaran, Euskararen Eguna beharrez, Euskararen Astea ospatu dute Berbak antolatuta. Hala, giro ezin hobean, hainbat ekitaldiz gozatu dute. Zapatuan, esate baterako, herri bazkaria egin zuten Munibe plazan. 70

lagun elkartu ziren mahaiaren inguruan eta bazkalosteko trikitilarien laguntzarekin arratsalde hotza berotzea lortu zuten. Kalejira errebindikatiboa aurreikusita zegoen arren, azkenean bertan behera geratu zen. Ez, ordea, gaueko kontzertuak: Fly Shit eta Edan taldeek jendea dantzari zuten Munibe plazan.

Eskoriatzan ere hainbat ekitaldi egin zituzten. Giroa pres-

tatzeko, egubakoitzean, Anje Duhaldek *Sorminetan* disko berria aurkeztu zuen Intxaurtxueta kiroldegian. Eta atzo kantu bazkaria egin zuten Elixoste elkartean, Aitzorrotx kultur elkarteak antolatuta. Adin tarte guztietako 61 lagun elkartu ziren bazkaritan, eta ondoren, Urretxuko Bentzaharreko Mutil Alaiak musika taldearen laguntzarekin kantu herrikoiak abestu zituzten. Giro ezin hobea izan zen Eskoriatzako euskaltzaleen artean.

Baina momentu hunkigarriak ere izan genituen Euskararen Egunean: Arrasaten eta Bergaran Zahar berrikoak eta AEKn irakasten hasi zirenak omendu zituzten hurrenez hurren.

Bergaran, gainera, etorkinak txalotu gura izan zituzten. Azken hilabete hauetan Udal Euskaltegia eta Jardunen euskara ikasten ari diren atzerritarrak izan ziren omenduak. Hunkiturik, euskal gizartearen parte izan gura dutela adierazi zuten, eta horretarako euskara ikastea ezinbestekoa dela gaineratu zuten.

**KOMUNIKAZIO TRESNA**

Euskararen Egunean, gure hizkuntzak bizi duen egoeraren gainean hausnarketa txiki bat egin zuten hainbat eragilek. Bergarako ekitaldian Jardun elkarte-ko idazkari Jon Unamunok egin zituen berba batzuk: Bergaran

**Bergarako Munibe plazan 70 lagun elkartu ziren bazkaritarako**

**Eskoriatzan, berritasun bezala, kantu bazkaria antolatu zuten**



Txatxilipurdik antolatuta hainbat haur elkartu ziren Serber Altube plazan

euskarak duen egoera ona dela azaldu zuen; hala ere, normalizazio bidean egitekoak daudela gogorarazi nahi izan zuen: "Erakunde batzuetan komunikazio tresna bezala gaztelania erabiltzeko joera handia dago. Horre-

gatik bai pertsonak eta bai erakundeak euskararen aldeko apustua egitera animatu gura ditugu", esan zuen Unamunok Munibe plazako ekitaldian.

Arrasaten, Zahar Berri proiektuaren adibide garbia izan

## • UNE ALAIK ZEIN HUNKIGARRIAK BIZI IZAN GENITUEN EUSKARAREN EGUNEAN



**EUSKARA IRAKASTEN HASI ZIRENAK.** AEKn euskara irakasten hasi ziren irakasleak omendu zituzten Bergaran atzo. 12 lagunek jaso zuten omenaldia Munibe plazan: Lide Oregik, Maria Angeles Aiastuik, Mari Angeles Zezeagak, Elisa Ugartek, Kontxi Umerezek, Miren Labordak, Bego Garmendiak, Arantzazu Balanzategik, Iñaki Osak, Josune Alberdik, Gurutze Aranak eta Juan Martin Elexpuruk. Enaitz Alustizak idatzitako bertsoa jaso zuten oroigarri gisa.



**ZAHAR BERRI.** Arrasaten Zahar Berri proiektua omendu zuten Euskararen Nazioarteko Egunean. Gutxi barru 10 urte beteko ditu proiektuak, eta, hori dela-eta, arrasatearren omenaldia jaso zuten. Mari Cruz Herranzek, Yolanda Cañamaquek eta Orreaga Zubizarretak jaso zuten, Zahar Berriren izenean, ARTE elkarte-ko Felix Iturbek egin eta emandako zurezko pieza. AED elkarte-ko lehendakari Zigor Masipen eskutik jaso zuten aipatutako pieza.



Euskararen eguna ospatzeko

JOSETXO ARANTZABAL


genuen agurreko bertsoetan. Xanti Iparragirre eta Ane Zuzubizkar igo ziren oholtza gainera; belaunaldi ezberdinetako bi bertsolari. "adinak bereizten gaituen arren euskarak batzen gaitu", esan zuen bertsoetan Ipa-

rragirrek. Bertaratutako euskaltzaleen txalo zaparrada jaso zuen.

AEDko dinamizatzaile Itxaro Artolak hauxe esan zigun: "Arrasateko egoera baino gehiago, arrasatearrak aipatu gurako

nituzke. Azken finean, norbana-koaren ardura da euskararekiko daukagun jarrera".

Horixe da erronka: euskararen erabilera bultzatzea, eta atzo debagoiendarrek horren alde egin zuten apustu.



**ANTZUOLAN TALO JANA.** Txatxilipurdik eta Gazte Guneak antolatuta, talo jana egin zuten Antzuolako gaztetxoek atzo arratsaldean. Hainbat lagun elkartu ziren Zurrategiko plazan, eta, baliabide gutxi izan arren, gogoia soberan izan zuten elkartutako lagunek. Bestalde, Eskoriatzan eguerdiko ordu batean ere egin zuten talo jana. Ondoren bazkaria izan zuten Elixoste elkartearen musika taldeak alaituta. Kantu liburuxkak ere banatu zituzten eta guztiak jarri ziren kantuan. Arratsaldean, 7 urtetik gorako umeentzako jolasak izan zituzten plazan.

• OIHARTZUN HANDIA IZAN DUTE EKITALDIOK



AINHOA ETA LIBE | ARRASATE

**"Euria egin duen arren egun polita izan da, jende askok parte hartu du eta Zahar Berrikoen omenaldia oso polita izan da"**

"Euskararen Nazioarteko Egunean Txatxilipurdik antolatu dituen jokoetara etorri gara. Helburua euskaraz hitz eginez jolastea izan da. Normalean Txatxilipurdik antolatzen dituen ekintzetan parte hartzen dugu eta gaur ez dugu aukera alferrik galdu Seber Altubera etorri eta ondo pasatzeko. Zahar Berrikoek jaso duten omenaldia oso polita izan da; gustura egon gara Euskararen Eguna ospatzen".



NEREA | ARRASATE

**"Jende asko inguratu da Euskara Eguna ospatzera"**

"Egun polita izan da gaurkoa. Jende asko animatu da, bai gaztetxoak eta baita nagusiagoak ere. Eguraldiak lagundu ez duen arren giro polita egon da eta marrazteko aukera izan dugu Txatxilipurdikoekin".



NOE, ELENA, JESUS, JOSE ETA TZETZKAL | BERGARA

**"Polita izan da egin duguten omenaldia; guk ere bertako kulturaren parte izan nahi dugu euskara ikasiz"**

"Atzerritik etorri gara eta hemen beste kultura batekin egin dugu topo. Euskara ikasiz bertako kultura eta gizartean integratu gura dugu", adierazi ziguten atzo omenduak izan ziren atzerritarrek. Elena da euren euskara irakaslea, eta zera esan zigun: "Gazteek lana bilatzeko ikasi gura dute euskara eta nagusiek, berriz, gizartean integratzeko". Orain dela hilabete hasi dira euskarazko eskolak hartzen, eta samurra dela diote. Gustura ari dira eta aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa dute.

**LAN ESKAINTZA**

**ESKORIATZAKO AISIALDI ZERBITZU  
BATERAKO AUKERATZE-PROZESUA**

Betebeharrak:  
hezkuntzarekin edo formazioarekin harremana  
daukan diplomatura

•  
Denbora librean esperientzia

•  
EGA edo baliokidea.

Bidali curriculumak: pilar@ludoland.net:

Tel.: 902-29 30 00

ETXEBIZITZA | 148 ETXEBIZITZA ESKURAGARRI EGINO DITUZTE ZERRAJERAN

# Bi urte barru egongo dira alokatzeko prest gazte eta nagusiendako etxeak

*Egubakoitzean ipini zuten Zerrajera kalean egongo den eraikinaren lehen harria; 2008 erdialdean zozkatuko dituzte*

Jon Berezibar

Inazio Lakuntza alkateak, Kepa Badiola La Caixako Euskal Herriko ordezkari orokorrak eta Jaume Cabre kutxa horretako Gizarte Ekintzaren Etxebizitza Eskuragarriaren kontseilari ordezkariak hartu zuten parte ekitaldian. Uztailean sinatu zuten Arrasateko Udalak eta La Caixa aurrezki kutxak elkarlanerako hitzarmena eta helburua da 18 eta 35 urte bitarteko gazteek eta 65etik gorakoek etxebizitza modu eskuragarrian alokatzea. Ekitaldian lehenengo harria ipini eta eguneko egunkariak lurperatu zituzten alkateak eta kutxako ordezkariak.

Ekimenaren bultzatzaileek bermatzen dute alokairuaren prezioak merkatukoak baino txikiagoak izango direla. Hala, aurten alokatuko balira, gehienez ere prezioa ez litzateke hileko 240 euro baino handiagoa izango; izan ere, errentariaren diru sarreraren arabera izango da alokairua, eta urterik urte KPIak emandakoa gehituko zaio. Etxebideko zerrendetan izena emanda sartu ahal izango dira eskatzaileak etxebizitzaren zozketan, eta lehentasuna Arrasaten erroldatuek izango dute lehenik eta ondoren deba-



Inazio Lakuntza alkatea etxeen eraikuntzaren lehen harria ipintzen.

JON BEREZIBAR

goiendarrek. Hala, eskatzaileek erroldan egon beharko du 2005eko urtarrilaren 1a baino lehen.

Alokatzeko epeari dagokionez, gazteek bost urterako hartu ahal izango dute etxebizitza alo-

kairuan eta erretiratuek epe hori luzatu ahaliko dute.

Promozio horrekin, dagoeneko 16 promozio eta 1.500 etxe sustatu ditu La Caixako Gizarte Ekintza Sailak Estatu osoan. Euskal

Autonomia Erkidegoan ere hitzarmena dute sinatuta Lakuako Gobernuarekin, herrialdeko beharren arabera entitatearen gizarte ekimenak indartzeko helburuarekin.

## Ezaugarriak

### • AZALERA ETA GELAK

Etxebizitzek 50 eta 60 metro koadro artean izango dituzte, logela batekoak edo bikoak diren arabera.

### • EKIPAMENDUA

Sukaldea, terraza eta arropa eskegitzeko lekua izango dituzte. Eta aparkaleku bat.

### • ALOKAIRUA

Errentaren arabera eta merkatuan baino merkeagoa izango da beti.



148 etxebizitza egingo dituzte, logela bakarrekoak eta bikoak.

ARTXIBOA



JOSETXO ARANTZABAL

12 taldek jarri zuten saltokia.

## Elkartasun azoka adiskidetasun giroan ospatu zuten Oñatin

A.E.

Elkartasuna eta justizia soziala hizpide, Elkar Hezi ikastetxeak gobernu kanpoko erakunde azoka ospatu zuten zapatuan Oñatiko plazan.

Gobernu kanpoko 12 erakunde elkartu ziren Oñatiko plazan, besteak beste: Medicus Mundi, Komite Internazionalistak eta Saharako Lagunak. Batzuek euren proiektuen berri eman zuten eta beste batzuek, bide batez, bigarren eskuko materiala eta bidezko merkataritzako produktuak saltzeko aprobetxatu zuten aukera. Hasiera batean saltokiak plazan ipini zituzten arren, euria hasi zenean plazako arkupeetara eraman behar izan zituzten.

### SALMENTA ONAK

Harreman dendako Iñigo Truebak adierazi zigunez, asko saldu zuten; izan ere, Oñatiko plazara eramandako ia guztia saldu zuten.

Bestalde, hilaren 18an jaiotza ospatuko du Elkar Hezik eta bertan batzen den dirua zenbait proiektutan laguntzako bideratuko du.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

'EUSKAL HERRIAK AUTODETERMINAZIOA' KANPAINA | HERRI KONTSULTA SINBOLIKOA EGIN ZUTEN ZAPATUAN ARRASATEKO PLAZAN

## Partehartzearen garrantzia azpimarratu dute Arrasaten

*Partehartzea bultzatuko duen udaletxea egin zuten aldarri plazan*

eta ez kasualitatez, eurak azaldu bezala: "Udaletxea bizkarrean izatea ez da kasualitatea izan. Izan ere, gaur egun han dauden alderdi politiko guztiek bizkarra eman diote herri honen zati handi bati apartheid egoera onartu-

ta". Baina horren ondotik, mezu garbia ere bidali nahi izan zieten herritarrei: "Ez ziguten utzi, baina utzi beharko digute. Ez gaude, baina egongo gara", gaineratu zuten Arrasateko plazan batutakoek.



JOSETXO ARANTZABAL

Hainbat herritarrek erantzun zioten kontsulta sinbolikoari.

M.B.

Autodeterminazioaren kanpainaren barruan beste ekitaldi bat egin zuen ezker abertzaleak zapatuan Arrasaten; herri kontsulta sinbolikoa, hain justu ere. Han batutakoek azaldu zuten, azken garaian "gai potoloak daude arrasatearron ahotan. Gure bizimodu garrantzia handia duten gaiak dira, gure bizimodua alda ditzaketenak eta guztioi dagokigu erabakitzea horietako proiektu bakoitza nahi dugun ala ez". Kontsulta sinbolikoan lau galderari erantzuteko eskatu zieten plazan egokitutako mahaira hurbildu zirenei, orritxoak beteta: Udalatzeko harrobia, Abiadura Handiko Trena, komertzio gunea eta Gelmako etxeen gainean, hain justu ere.

**PROIEKTU PARTEHARTZAILEA**  
Proiektu partehartzailearen alde daudela esan zuten ekimenaren bultzatzaileek eta horrekin batera, partehartzea bultzatuko duen udaletxea nahi dutela; baita "horretarako mekanismoak jarriko dituen" ere.

Adierazpenok udaletxea bizkarrean zizutela egin zituzten,

### Labur

## Zilarrezko Q-a MUren Enpresa Zientziei eta ULMA Forjari

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien fakultateari eta Ulma Forja lantegiari Zilarrezko Q-a eman die Euskalitek kudeaketaren bikaintasunaren errekonozimendu gisa.

MUko Enpresa Zientzien fakultatearen kasuan, EFQM kalitatearen europar ereduaren arabera ebaluazioak 400 puntu baino gehiago eman dizkio. Abenduaren 19an jasoko dute Zilarrezko Q-a, Kursoalen egingo den ekitaldian.

Ulma Taldeko Forja negozioari dagokionez, eskuratu berri duen Zilarrezko Q-az gain, ingurumenarekin lotutako ISO 14001: 1996 ziurtagiria dauka, eta baita Lloyd's Register Quality-n ISO 9001: 2000 enpresa erregistratua ziurtagiria ere.

## zer nahi duzu bihar?

### ADITZE HUTSA EZ DA NAHIKOA. MERKATUKO SEINALEAK ANTZEMAN BEHAR DIRA.

Enpresan ezinbestekoa da egunean egotea eta merkatuaren joerak aztertzea. **kutxaenpresak** edukitzea, biharko eskariei aurre hartu ahal izateko behar dituzun aholkularitza eta kudeaketa gaur bertan eskura izatea da.

Eta etorkizuna aukerez beterik dagoenez, **kutxaenpresak**-en irtenbideak aurreratzen dizkizugu.



kutxaenpresak



Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak moztu zuen inaugurazio zinta.

## Bidebarrik jarduera berria zabaldu du: Gozokin

*Jarduera berri hori garatzeko, Udalak 200 m<sup>2</sup>-ko lokala utzi dio Bidebarri enplegu zentroari Zubillagako Olaburu zentroan*

### Arantzazu Ezkibel

Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak inauguratu zuen egubakoi-tzean Bidebarri enplegu zentroak abian jarri duen Gozokin jarduera berria.

Zubillagako Olaburu zentroan garatuko da jarduera eta, besteak beste, artisau erako pastak, tarta izoztuak eta txokolatezko produktuak egingo dituzte. Gozogintza arloko proiektu horri hasiera emateko, Bidebarrik lau langile kontratatu ditu: gozogile aholkulari teknikoak, gozogile lan-

gile bat eta bi gozogile laguntzaile. Epe ertainera 10-12 langile izatea aurreikusten da, eta guztira 150 mila euroko inbertsioa izan du proiektuak.

### AUTONOMIA HANDIAGOA

Jon Igartuak, Bidebarriko gerenteak, zera esan zuen: "Gozokin proiektuaren helburua autonomia handiagoa izango duen aktibitatea sortzea izan da". Lan azpikontratatuaren aukera ez baztertu arren, Bidebarriren helburua jarduera propioak sortzea izan da orain arte. Hala, bide

horretatik enplegu gehiago sortzea aurreikusten dute. Igartuak bereziki eskertu nahi izan zituen Bidebarri martxan jarri zen lehenengo urte zailtan lanean aritu ziren Jesus Bikuña, Jesus Mari Ugarte eta Migel Etxegoien.

Alkateak, berriz, babestu gabeko eta zailtasunak dituztenen alde lan egiten dutenak zoriondu nahi izan zituen. Bidebarrik "gaur egun duen burujabetasuna" ere azpimarratu gura izan zuen Idoiaga alkateak.

### 26 LANGILE

Bidebarri 1996an sortu zen, herriko pertsona ezgaituak eta egoera sozio-ekonomiko larrian daudenak laneratzeko helburuarekin. Gaur egun 26 langile ditu enplegu zentroak.

## Aaiunen dira dagoeneko Ikastolatik Sahara joandako 140 lagunak

*Zapatuan abiatu ziren Loiutik eta errefuxiatuen kanpalekuetan hainbat lan egingo dituzte emango duten astebetean*

### A.G.

Zapatu goizaldean abiatu ziren Loiuko aireportutik *Ikastolatik Sahara* proiektuaren barruan Tindoufeko errefuxiatuen kanpalekuetara joan diren 140 lagunak. Hilabete asko eman dituzte proiektu horretan lanean eta dagoeneko hantxe dira. Arrasateko Nubi elkarte-kideak eta Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako ikasle-16 eta 19 urte arteko 125 dira-eta irakasleak joan dira. Baita mediku bat eta Goienako kazetari bat eta kameralaria bat ere; haiek *Goienkaria*-rako eta GOITBrako hainbat erreportaje egingo dituzte.

Horrez gain, bi bat tona material ere eroan dute euren errefuxiatuen kanpalekue-

tarako: lapikoak, botikak, eskolako materiala, ordenagailuak, eguzki plazak eta oinarrizko hainbat gai eroan dituzte. Kamioi handi bat eta furgoneta txikiagoa bete zituzten bari-ku iluntzean.

### ASTEBETERAKO PLANA

Askotariko lanak egingo dituzte Aaiungo kanpalekuetan. Esaterako, gaur, astelehena, Zestoako elkarte batek han egingo ortua ikusiko dute eta Olof Palme emakumeen formaziorako eskola bisitatuko dute. Sahararrak kanpalekuetan nola bizi diren ezagutzeaz gain, hainbat lan ere egingo dituzte: bi eskola margotuko dituzte, eroandako ordenagailuak martxan jarriko dituzte eta ortuan lan egingo dute.



JON BEREZIBAR

Eroan duten materiala kamioietan sartzen harrapatu genituen barikuan.

### • SUHILTZAILEEK JOAN BEHAR IZAN ZUTEN ITZALTZERA

#### OÑATIKO PORTU KALEKO EDUKIONTZIETAN SUTE TXIKIA IZAN ZEN

Domeka goizaldean sua piztu zen Oñatiko Portu kalean dagoen papera biltzeko edukiontzietan. Kea kale guztian zehar zabaldu zen eta sua itzaltzera Zubillagako suhiltzaileek joan behar izan zuten. Paper-edukiontzietara zabaldu. Bestelako eragozpenik ez zuen eragin gertaerak.

Bada, Ertzaintzak aditzera emandakoaren arabera, gertae-rak 02:10ean izan ziren eta suteak kalte txikiak eragin zituen. Portu kaleko edukiontzietatik batzokiaren ostean daude, eta, horren ondorioz, Batzokiko fatxada kalteak izan zituela adierazi du Ertzaintzak.



JOSETXO ARANTZABAL

### • ANDALUZIAKO KULTURA EZAGUTZERA EMATEN



JOSETXO ARANTZABAL

#### INAUGURAZIO PLAKA ERAKUTSI ZUTEN

Zapatuan ipini zuten Arrasateko Al-Andalus elkartearen inaugurazio plaka. Orain dela hamar urte ireki zuten andaluziarren kultur etxea herrian, baina, hainbat arrazoi tarteko izan dela, aurtengo urteurrenean ipini dute plaka. Horretarako, inaugurazio eguneko ekitaldian izan zen Jose Antonio Maturana, Garraio eta Herri Lan sailburu ohia, Ana Segovia eta Paco Gartzia zinegotziekin batera. Ekitaldian Al-Andaluseko koru erro-zeroak eta Goikobalu abesbatzak hartu zuten parte.



## Albiste izango da

ARETXABALETA | 10:30EAN, KURTZEBARRI ESKOLAN

### San Martin-San Jose Kofradiak batzar orokorra egingo du barikuan

Ohiturari jarraituz, hilaren 8an, egubakoitza, urteko batzarra egingo du San Martin-San Jose Kofradiak. Kurtzebarri eskolan izango da, 10:30ean. Aurreko urteko akta irakurriz hasiko dute batzarra eta ekintza txostena eta kontu balantzea aurkeztuko dituzte gero. Horrekin batera, zuzendaritza taldea berri egingo dute. Lauk laga egingo dute eta lau berri sartuko dira –bi urterako hautatzen dituzte kideak–. Kofradiak 150 urtetik gora ditu, hildako bazkideez arduratzen da eta familiari hainbat zerbitzu eskaintzen dizkio.

BILBO | FORMAZIOA JASOTZEN DIHARDUTE HUHEZI-N

### Madrazok Brasilgo MST aurkeztuko du gaur Bilbon HUHEZIREKIN batera

Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Galetako sailburuak Movimiento Sin Tierra (MST) aurkeztuko du HUHEZIKO fakultatearekin batera gaur, astelehena, Bilbon, 12:30ean. Zortzi astean, MSTko 18 lider kooperatibok formazioa jasotzen dihardute Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitatearen HUHEZIKO fakultatean. Saio horren ardatzak dira kooperatibismoaren zentzua eta autoeraketa –gizarte mugimendu baten zerbitzura–, ekintzaile izaera, eta, azkenik, kudeaketa erremintak. Duela zazpi urte hasi zen Mundukide, Lanki eta MSTren arteko harremana. Lehen harreman ofiziala Esperientzia Komunitarioen Trukean hasi zen.

ANTZUOLA | BIHAR, MARTITZENA, 12:00ETATIK 13:00ETARA

### 'Langileekin ez jolastu' lelopean ordubeteko lanuztea deitu dute

Talleres Anzuolako langileek gertatu diren azkeneko bi kalera-tzeak direla-eta lanuztea deitu dute biharko, martitzena, 12:00etatik 13:00etara Antzuolan. Horrekin batera, kale agerraldia ere egingo dute, 12:15ean, Bergaran, lantegiaren aurrean –sortzez antzuolarra izan arren gaur egun Bergaran dago lantegia–.

Modu horretan, uztailetik azarora bitartean gertatu diren bi kaleratzeak salatu nahi dituzte langileek. Kaleratzeok salatze-ko mozioa ere aurkeztu zuten barikuan langileek Antzuolako Udalean eta bat egin zuen harekin udalbatzak. Besteak beste, Talleres Anzuolak bizi duen egoera laboralaren inguruan kezka adierazi dute, eta kaleratu dituzten bi langileenganako elkartasuna.

DEBAGOIENA | ASTEON AZALDUKO DITUZTE ARRAZOIAK

### Ibarreko merkatariak, Zabaletan egitekoak diren gunearen kontra

Arrasateko Zabaleta guneara eraiki nahi duten merkataritza-gunearekin ez daude batere ados Debagoieneko merkatari elkarteak: Arrasateko Ibai-Arte, Aretxabaleko Aretxarte, Oñatiko Txanda eta Bergarako Bedelkar, hain justu ere.

Halaxe jakinarazi dute prentsa ohar baten, eta Zabaletako merkataritza-gunearen kontrako jarreraren berri emateko prentsaurrekoa deitu dute biharko, martitzena. Euren nahiaren adierazle den leloa ere aukeratu dute: *Kaleak bizirik, zentro komertziala hemen.*

ARRASATE | HILAREN 29RA ARTE EGONGO DA ZABALIK

### Elkartasun erakusketa zabaldu berri du Harreman-ek Monterronen

Harreman GKEk elkartasun erakusketa zabaldu du Monterron kultura etxean. Arrasateko artistek "eskuzabaltasun osoz emandako" margolanekin osatutako erakusketa da, Harreman-eko kideek azaldu duten moduan. Lanok salgai daude eta jasotako dirua behar duten herriei eta baztertuta dauden pertsonen laguntzeko erabiliko du erakundeak. Horrekin batera, Harreman-eko kideek gogora ekarri dute lanean dihardutela San Klemente proiektuan eta baita Ankur (India) herriko neska baztertuei laguntzen ere. Erakusketa abenduaren 29an itxiko dute Goikobalu abesbatzak 20:00etan parrokiaren egungo duen emanaldiarekin.

## Hitzorduk



### LASTER APAINDUKO DITUZTE ERAKUSLEIHOAK MODU BEREZIAN | Gabonetako erakusleho lehiaketa deitu dute Arrasaten eta Bergaran

Herrietako denden erakuslehoak laster ikusiko ditugu Gabonetako eta, Arrasateren kasuan, Santamasetako giroan apainduta. Izan ere, herri horietako udalek erakusleho lehiaketa antolatu dute, eta Bergaran abenduaren 12an eta Arrasaten 16an hasiko da erakuslehoak apain agertzeko epea.

Herriko denda guztiak sartzen dira lehiaketan, izenik eman gabe.

Bietan ere, dendako ohiko produktuek agertu behar dute erakuslehoan. Irudimena, originaltasuna eta eraginkortasuna baloratuko dira. Bi kasuetan, 250 euro da sari nagusia.

#### ARETXABALETA |

- **Beinkereren urteurren afarirako izenematea**  
Beinke elkartearen 20. urteurrena ospatzeko afaria antolatu du Loramendi euskara elkarteak abenduaren 15erako. Izena emateko, deitu Loramendira.
- **Kontakt-inprobisazio ikastaroa egingo dute**  
Kontakt-inprobisazio ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak abenduaren 16 eta 17rako musika eskolan. 13 orduko ikastaroa da, eta leku kopuru mugatua dago. Izena emateko, deitu 943 53 43 96 telefonora (Maier).

#### ARRASATE |

- **Santa Lutzia eguneko luntxerako izenematea**  
Abaroako bazkideek luntxa izango dute abenduaren 13an, Santa Lutzia eguna. Horretarako izena eman behar dute bulegoan, bazkide txartela aurkeztuta, eta bihar, martitzena, da azken eguna.
- **San Nikolas boloa egingo dute etzi, eguaztena**  
Arrasaten ohi den moduan, San Nikolas eguneko boloa egingo dute etzi, eguaztena, Herriko Plazan. Gozokiak, txanponak... botako dituzte udaletxeko balkoitik. 12:00etan da lehenengo boloa eta 12:30ean bigarrena.

#### • BAZera eraman daitezke galdutako gauzak

- Gauza galduen bulego zerbitzua dute BAZen. Denetarik daukate: betaurrekoak, erlojuak, giltzak, arropak, bitxiak, Maritxu Kajoin galdutakoak... Zerbait galdu duenari dei egingo diote han galdetzeko.
- **Sahararen aldeko zozketako zenbaki saridunak**  
Arizmendi ikastolak egin duen Sahararen aldeko zozketan zenbaki hauek saritu dituzte: 23.497 (asteburua landetxean), 64.746 (bi lagunendako afaria) eta 21.267 (La Perlan saioa).
- **Hainbat Interneteko ikastaro emango dituzte**  
Honako Interneteko ikastaroak izango dira: bat-bateko mezularitza (hilak 4 eta 5, 09:00-11:00), sinadura elektronikoa (hilak 4, 16:00-17:00), itzultzaileak (hilak 4, 17:00-18:00) eta posta elektronikoa (hilak 5, 18:00-20:00).

#### BERGARA |

- **Herriko alargunek batera bazkalduko dute**  
Herriko alargunen elkarteak bazkaria egingo du abenduaren 8an, egubakoitza. Izena eman daiteke elkartearen bertan.
- **Sabel dantza ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak**  
Sabel dantza ikastaroa antolatu du Jardunek abenduaren 13, 15, 20 eta 22rako. Izenema-

tea zabalik dago abenduaren 11ra bitartean (943 76 36 61).

- **1976an jaiotakoek bazkaria izango dute hil erdialdean**  
1976an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute abenduaren 16an Txarrantxa jate-txean. Izena emateko, sartu 35 euro Kutxan zabaldutako kontuan, abenduaren 10a baino lehen.

#### ESKORIATZA |

- **Mexikoko herri zapalduen gaineko dokumentala**  
*Oaxaca* dokumentalaren lehen zatia emango dute gaur, astelehena, Inkernu tabernan, 22:00etan, Mexikoko herri zapalduen gainean.
- **Capoeira eta maculele ikastaroa izena emateko**  
Capoeira eta maculele ikastaroa antolatu du Senzala Euskadi elkarteak hilaren 15etik 17rako. Argibideak: [senzala-euskadi@hotmail.com](mailto:senzala-euskadi@hotmail.com).

#### OÑATI |

- **Espainiako Konstituzioaren eguneko protesta ekintzak**  
Espainiako Konstituzioaren egunean, abenduak 6, horren aurkako ekintzak egingo dituzte gazte batzarrak eta Portu tabernak: 12:00etan, bideo emanaldia Portu tabernan; 14:00etan, baba-jana eta, gero, bertso saioa; eta 17:00etan, pre-soen hitzaldia.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Bergarako igerilekuaren tarifen gehiegikeria

Irakurle batek gehiegizkotzat jotzen du Udalak aditzera eman berri dituen 2007rako igerilekuetarako tarifak. Hiru kideko familien (17 urtetik beherako seme-alaba bat dutenentzat) urteko kuota 486 euro da eta lau kidekoena, 540. "Gehiegizkoa" dela dio irakurle horrek eta galdetzen du ea zergatik kendu duten familia-txartela. Hala azaltzen du: "Igerilekuen zerbitzua garrantzitsua da, herrian zerbait egiteko aukera ematen duelako, baina prezio hauekin jarraitzen badute beste igerilekuetako bazkide egitea besterik ez zaigu geratzen". Zerbitzuaren garrantzia azpimarratu nahi du irakurleak eta autofinantzaketaren planteamendua zalantzan jartzen du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

## Sarean harrapatuta

### Veleiako euskarazko testuek zeresana eragin dute

Uda hasieran Arabako Iruña-Veleia aztar-nategian erromatar garaiko (K.o. III-V) euskal idazkiak azaldu ei ziren. Azken asteotan, ordea, hainbat adituk zalantzak eta mesfidantzak agertu dituzte.

Beste medioetan bezala, gai horren gaineko eztabaida piztu da euskarazko zenbait blogetan ere. Hemen bildu ditugu blog horietan azaldu diren iritzietako batzuk.

### AURKITUTAKO HITZEK EZ DUTE ZENTZURIK

Veleiako hitzak elkarrekin lotuta baleude esaldiren bat osatuz agian zentzuren bat izan zezaket, baina itxura denez hitz solteak dira. Nork idazten ditu hitz solteak? Zertarako? Gaur egun bertan, idazkirik insustantziak lenek ere, adibidez hormetan edo komuneko ateetan zirriborrazten direnek, zerbait esaten dute: egileak bere izena jartzen du, edo afektu kontu bat agertzen du, edo modako kantu baten letra zatia kopiatzen du, edo esaldi xelebreren bat idazten du, baina nekez aurki daitezke aditz solteak ("jan", "lo", "edan" modukoak), edo koloreak ("urdin", "gorri") loturarik gabe, ezer adierazi gabe. Horrek, itxuraz behintzat, ez du zentzurik, ez dio ezer esaten ez idatzi duenari ez irakurleari. Horregatik dira hain arraroak Veleiako idazkiak.

Zalantzak dituzten adituek, oraindik ere, prentsan agertutako ohar, elkarrizketa eta argazkietara jo behar dute. Eta, jakina, egunkarietako informazioaren gainean ez dago kritika zientifiko sendorik eraikitzerik. Beraz, indusketaren memoria agertu arte itxaron beharko da auziak aurrera egin dezan.

Jurgi Kintana /  
www.unibertsitatea.net

### NORBAITEK IKUSI DITU IDATZIAK?

Grafitoetan agertu diren erlijio irudiak erakutsi dizkigute. Egin dituzte argazkiak eta publikoki banatu dira: gizaseme gurutziltzatuen gorpuak ikusteko baimena jaso dugu. Baina euskara zaharraren aztarna hauen irudirik ez. Zergatik? Min emango ote digu begietan euskara zaharrak? Ala geure begiek hondatuko dute euskara zaharra?

Eta bueno, beste galdera bat. Herritar arruntok ez baditugu idazkunok ikusi, ze hizkuntzalarik ikusi ditu? Nork ikusi ditu? Eta zer ikusi dute?

Luistxo Fernandez /  
www.eibar.org

### NORMALA DA DUDAK IZATEA DATURIK GABE

Mesfidantza izatea horrelako aurkikuntza baten aurrean normala da, batez ere datu guztiak esku artean ez ditugunean eta aurkitutakoak "ohiko legeak" ez ditugunean betetzen. Hala ere, indusketaren memoria agertu arte itxaron beharko da auziak aurrera

egin dezan, ez ditzagun balio-judizio arinak egin.

Uxune / www.unibertsitatea.net

### ERANTZUNAK BEHAR DIRA SEGITUAN

Zuhurtasuna, zuhurtasuna... baina zein mundutan bizi gara? Noiz arte helduko zaio zuhurtasunari gure gizarte mediatiko honetan? Erantzunak behar ditugu, eta zenbat eta lehenago, hobe.

Ekainetik azarora ia isiltasun absolutu batez igaro zen kontua, baina azaroko eztanda handi xamarra izan zen. Bada, inork uste du oraingoan posible izango dela beste lau hilabeteko zuhurtasun-aldi bat igarotzea adituen hitz zuhurren esperoan?

Pruden Gartzia /  
www.unibertsitatea.net

### ZALANTZA ETA INBIDIA SORTU ZAIGU

Zalantza sortu zaigu, zein ote dabilen zeinen atzetik: katua odolostearen bila, ala odolostea katuaen bila. Ikertzaile horietako batzuk egunkarietan, aldizkarietan, irratietan... ikusi ditugunean, inbidia sentitu dugu ezkutuan, horien egunak, gureak ez bezala, astia ematen duelako egun berean kazetariei atseginez erantzun ahal izateko.

R.G.B. /  
www.unibertsitatea.net

## Halaxe erantzun digute

Unibertsitateko hirugarren mailako ikasleen ia herenak ez dute bokazioz ikasten. Zein da ikusten den egoera



**MATILDE SAINZ** | HUHEZI, IRAKASLETZA ARLOA

Irakaskuntza arlo bokaziozkoa da eta gure ikasleek garbi daukate zer ikasi gura duten, nahiz eta osperik onena duten lanbideen artean ez dagoen egun irakaslearena. Humanitateetan igarri da beherakada matrikulazioetan, ikasleek irteera profesionalari begiratzen diote-eta.



**ELI MENDIA** | ARIZMENDI IKASTOLAKO ORIENTATZAILEA

Osasun arloko ikasketetan ikusten da bokazio handien. Hala ere, 18 urterekin bizitzan zer egin nahi den jakitea ez da normalean eta gaur egun ikasleek asko begiratzen diote etorkizunari, eta porrotari beldur handia diote. Lan mundua ez dute gertutik ezagutzen eta zaila da aukeratzeko.



**EDORTA ARANA** | EHU-KO IRAKASLEA

Norberak nahi duena ikastea da garrantzitsua. Gaur egun edozein unibertsitate-ikasketak lan mundurako abiapuntu moduan balio du, sarbide modura. Ez dut bokazioetan sinisten, baina nork bere gustu, ahalmen eta baldintzen arabera aukeratu beharko luke.



**AITOR ZUBEROGOITIA** | HUHEZI, IKUS-ENTZUNEZKOEN ARLOA


Sistemaren akatsa ikusten da hor. HUHEZIn Ikus-entzunezko Komunikazioarekin lehen promozioan gaude, baina alderantzizkoa gertatu dela esan genezake. Merkatura egokitutako ikasketak direla ikusi dute eta hori hirugarren mailatik aurrera ikusi ahal izan dute.

## Egunkarietako harribitxiak

### GARUNAK AZTERTZEN

Gaixotasun asko diagnostikatzeko modua garunean dago. Belaunaldi berriko eskanerrek eta ehunetan aldaketa molekularrak nabaritu eta alarma-txistu gisa funtzionatzen duten substantzien garapenak minaren tratamendua goitik behera aldatuko dute. Adimena irakurtzera iritsiko dira?

'El Mundo'  
2006-12-02



### LABORANTZA SEKTOREA, ZENBAKITAN


Laborantzak garrantzi handia izan du Euskal Herrian. Eta, zer esanik ez, Euskal Herriaren garapenaren ekonomikoan. Orain dela urte batzuk lehen sektoreko jarduerak ziren euskal herritar gehienek bizimodua, artean, laborantza. Denboraren joanean, baina, gauzak dezente aldatu dira. Gaur arte, ordea, ezinezkoa zen datu zehatzik izatea. Inon ez zeuden jasota Euskal Herri

osoko laborantza sektorearen egoera islatzen duten datu errealak: ustiategi kopurua eta haien tamaina, nola banatzen diren herrialdeka, zenbatekoa den nekazaritzarako azalera erabilgarria... Bada, Gaindegiak azken 20 urteotan sektoreak izan duen bilakaera islatzen duen txostena kaleratu berri du. Datu bilduma da. Ondorioak norberak atera behar ditu.

'Berria'  
2006-12-02



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-XII-03

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'

#### TORTURA

Argi utzi beharra dago ezen, tortura desagerrarazi -edo gutxitu- nahi baldin bada, ezinbestekoa dela egiturak eta legeak sakon aldatzea: inkomunikazio aldia ezeztatzea, presoak sakabanatzeko politika baztertzea, inmigratioak sorturiko arazoa errotik konpontzea... eta batez ere, ezinbestekoa da tortura bukatzeko borondatea izatea.

Jorge del Cura  
2006-12-02

### 'Gara'

#### DISPERTSIOA

EAJ izan zen euskal presoek dispartzioaren bultzatzaileetako bat. Orain, alderdi horrek eta haren banaketak -EA- ahoa bete-bete egiten dute sakabanatzen lagundu zuten presoek hurbilketa eskatzen. Baina behin egongo aberriratzea euren esku eta galarazi egin dute. Hitzak hitz dira; esandakoa betetzea da kontua.

Alvaro Reizabal  
2006-12-02

### 'Noticias de Gipuzkoa'

#### ORAIN AZKARRAGO

Benetako ekologistek, berde kontsekuenteek laguntzarik txarrena jaso berri dute. Batasunak Abiadura Handiko Trenaren kontra egiten duen hitz bakoitzeko bikoiztu egiten dira aldeko hitzak. Bakarrik falta da ETak parte hartzea jendea haren bagoietan babesteko. Erresistentzia sinbolo bihurtuko dute izuaren aurrean.

Xabi Larrañaga  
2006-12-02


### 'El Diario Vasco'

#### ERLIJIOAK GAUR BADU ZENTZURIK?

Oker eta arriskuen harian, erlijioaren perbertsiorik gehienak eta zitalenak botereari lotuta daude. Erlijioa boterearekin ezkontzen denean kredoa ideologia bihurtzen da, elkartasuna morrontza, konfiantza beldur, erantzukizuna mendetasun, sakramentuak xantaia eta boterearen gailurrean, Jainkoa goi-jauntxo.

Joxe Arregi  
2006-12-02

## Zorroztailea



## Elurra Lepen

Lepeko Udalak herriko plazan jarriko duen aparailu bati esker, Gabonetan egunero 20:00etatik 20:15era elurra ari izango du. Gainera, bi euroren truke, nahi duenak izotz-patinajea ere egingo du plazan bertan. "Ikusgarria izango da; umeak primeran ibiliko dira eta gurasoak ere bai", adierazi du Lepeko alkateak, Manuel Andres Gonzalezek (PP).

'El Diario Vasco' | 2006-11-30

Juan Luis Azkarate

Las Vegasen eta Marrana D'Or-en edozein *horterada* posible zela bagenekien; baina, ikusten denez, nire Lepe kuttunean (azken urteetan inguru hartan igarotzen ditut nik udako oporrak) ere bai. Ez dakit nork asmatuko zituen Gabonak (beno, bai, badakit) baina elkartu ditxosozko jai hauek alkate populistak batekin eta gureak egin du.

Azken 50 urteetan Lepen ez dute elurrik ikusi; euria ere, oso gutxi; baina, Gabonetan, hamaika ikusteko jaiok. Eta, gainera, umeak eta gurasoak dibertitzeko bada, ze demontre, zergatik ez. Nahiz eta ura urria izan (eurek esaten dute ezetz, iturburu asko dagoela, lur azpian eta) inguru hura golf-zelaiez josita badago. Orain elurra ere badute, eta sikuteari eta aldaketa klimatikoari txisteak aterako dizkiote leperoeak, horretarako mai-

suak direla erakutsiz.

Nik erokeria hauek entzutean, telefilm katastrofista kaxkar horiek etortzen zaizkit gogora. Badakizue, indioen triburen baten lurralde sakratuen erdian fabrika kutsatzaile bat edo presa hidroelektriko bat eraikitzen dute enpresari gaizto batzuek eta, orduan, indioen Jainkoek, suminduta, lurrikarak edo beste katastrofe natural bat eragiten dute.

Baina ez da hori gertatuko, ez. Telebista guztiak Lepera joango dira miraria in situ kontatzera, eta Ramuntxo Garcia (zorte apur batekin, Anne Igartibururekin) abenduaren 31ko 12etako kanpaik Lepeko kanpandorretik zenbatuko ditu, zuzenean: bat, bi, hiru, lau... Imajinatzen al duzue zer nolako alde ederra, Ramuntxoren urteroko kapa luze eta beltza, Lepeko elurraren zuritasun perfektuarekin kontrastean?

**"Las Vegasen eta Marrana D'Or-en edozein *horterada* posible zela bagenekien; baina, ikusten denez, Lepen ere bai"**

**"Orain elurra ere badute, eta sikuteari eta aldaketa klimatikoari txisteak aterako dizkiote leperoeak"**

# KIROLA

- Bergara eskubaloitza lidertza sendotu du Usurbileri irabazita | 14
- 200 igerilari aritu ziren Agorrosinen Euskadiko Txapelketan | 19



Juan Martinez de Irujorekin izan gara lau t'erdiko txapelketako finalaz berba egiten | 16

## PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEAK

UDA

# 2-1

ALOÑA MENDI

**UDA** | Gaizka, Iñaki, Arkaitz, Ruben, Gorca, Arenatza, Iker, Aritz, Arriaga (Eriko, 78. min.), Lopez eta Espinosa (Ibon, 86. min.).

**Aloña Mendi** | Otamendi, Astola, Garai (Bazan, 59. min.), Arregi, Garmendia (Astigarraga, 59. min.), Elgarresta (Arregi, 62. min.), Lopez, Idigoras, Zubia, Barrena eta Olalde.

**Golak:** | 1-0, Igor Arriaga (10. min.), 1-1, Jokin Astigarraga (61. min.), 2-1, Iban Espinosa (82. min.).

**Epailea** | Matellanos jauna. Txartel gehiegi erakutsi zituen eta erabaki arraro samarrak hartu zituen.

**Bestelakoak** | Bailarako derbia izanik, Oñatiko zale asko hurbildu zen Ibarra futbol zelaira. Haizea oso gogor ibili zen.

### Bikain

#### UDAREN AZKEN EMAITZAK

Liga hasiera kaskarra egin eta gero, emaitza onak lortzen hasi da Aretxabaletako taldea. Etxean jokatuak azken lau partiduak irabazi egin ditu

### Kaskar

#### Epailearen lana

Txartel gehiegi atera zituen atzoko partiduan Matellanos jaunak. Hasierako 15 minutuetan hiru txartel atera zituen; gainera, ez zuen berdin jokatu batzuekin eta besteekin

### Esandakoak

"Pozik nago garaipenarekin, baina ez dugu azken partiduetan bezain ondo jokatu".

FELIX RECIO | UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Berdinketarekin eta jokalaririk bat gehiagorekin pentsatu dugu ez genuela partidua galduko".

AITOR ORUETA | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



Argazkian, Aloña jokalaririk Arregi eta Elgarresta eta UDAko Orueta aeta Arenatza baloiari begira.

JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** | PREFERENTE MAILAKO 13. JARDUNALDIKO PARTIDUA JOKATU ZEN IBARRA FUTBOL ZELAIAN

# UDAK irabazi zuen derbia, hamarrekirekin bukatu arren

*Azken 30 minutuak jokatu zituen Aloña Mendik jokalaririk bat gehiagorekin; baina ez zen gai izan, gutxienez, berdinketari eusteko*

Mireia Bikuña

Denboraldiko bigarren derbia jokatu zen atzo UDA eta Aloña-ren artean. Eta, hain zuzen, Ibarra futbol zelaietan jokatuak norgiagokoa amaitzeko zortzi minutu falta zirela erabaki zen, etxeko taldearen alde.

Bada, puntu garrantzitsuak batu zituen UDAk. Ibarra jokatuak azken lau partiduak irabazi ditu Felix Recio-ren taldeak, eta, hala, sailkapenean 13. da Aretxabaletako taldea.

Aloña, aldiz, atzerapausoa eman du sailkapenean. Derbia galdu ondoren, Aitor Orueta-ren taldea 14. da sailkapenean.

#### GOLA, 10. MINUTUAN

Derbia izanik, tentsioa izan zen nagusi partidu osoan; bai zelaian, jokalariren artean, eta bai harmailetan zaleen artean.

Norgiagokoa hasi eta berehala egin zuen UDAk lehen gola; ezkerretik jasotako baloia oso ondo errematatu zuen Igor Arriagak; 10. minutua zen.

Golaren ondoren, etxeko taldeak hobeto jokatu zuen eta gol aukera onenak ere UDAk izan zituen: 22. eta 39. minutuetan aukera garbiak izan zituzten aretxabaletarrek.

### UDAK garaipenaren gola amaitzeko zortzi minutu falta zirela egin zuen

**Aloña Mendik hobeto jokatu zuen UDA hamar jokalarirekin geratu zenean**

#### UDA, HAMARREKIN

Bigarren zatiaren hasieran, berriz, ez zen aparteko ezer gertatu. Norgiagokoa azken ordu erdian berotu zen: 60. minutuan UDA jokalaririk bat gutxiagorekin geratu zen, Arenatzak bigarren txartel horia ikusi zuen-eta. Hala, 61. minutuan Jokin Astigarragak Aloña-arentako berdinketaren gola egin zuen, eta gero, Aloña itxura hobea eman zuen.

Derbia berdinketarekin amaituko zela ematen zuen, baina UDAk bigarrena egin zuen: hain zuzen, Iban Espinosak egin zuen garaipenaren gola.

Markagailuan abantaila zutela, azken minutuak oso luzeak egin zitzaizkien UDAko jokalaririk eta zaleei. Etengabe eskatu zioten partiduen amaiera epaile jaunari.

**Preferente maila**



JOSETXO ARANTZABAL

Argazkian, Mondrako jokalaria Jon Lopez Ordiziako jokalariegandik ihes egiten.

# Mondrak irabazi egin zuen etxean, nahiko sufrituta

**MONDRA**  
**1-0**  
**ORDIZIA**

**Mondra** | Ander, Merca (Gotzon, 70. min.), Amu, Keixi, Laspiur, Ruben (Maikel, 46. min.), Losada (Muxi, 53. min.), Arkaitz, Julen (Illart, 15. min.), Lopez eta Aranbarri (Argider, 75. min.).

**Ordizia** | Iantxon, Iraola, Garmendia, Mendez 81rastortza, 56. min.), Sevilla, Oiarbide, Gomez, Odriozola, Tello, Mugika eta Imaz.

**Golak:** 1-0. Keixi (31. min.)

**Epailea:** Silguero jauna.

Mireia Bikuña

Atxabalpen jokaturako azken partiduetan lortutako emaitza txarrekin bukatu zuen zapatuan Mondrak, Ordiziari irabazi egin zion-eta. Hala, zapatuan batutako hiru puntuekin, Mondrak 24 ditu guztira.

**ORDIZIA, TALDE GOGORRA**  
Mondra eta Ordiziaren arteko partidua gogorra eta lehiatsua izango zela ikusi zen hasiera-hasieratik. Atxabalpera zaleak sartzen ari zirela izan zuen Ordiziak lehen gola egiteko aukera; Mondrako atezainak gaizki desbideratutako baloia birritan errematatu zuten Ordiziako jokalariek.

Baina Keixik egin zuen zapatuko gol bakarra, 31. minutuan. Areaz kanpotik falta bikain jaurti zuen Mondrako jokalariek. Hala, Mondra atsedenera abantailarekin iritsi zen.

Eta bigarren zatia hasi orduko Arrasateko taldeak bigarre-na egiteko aukera izan zuen; baina Laspiurrek errematea langara bidali zuen.

**PARTIDUA NAHASTU**  
Azken minutuak oso nahasiak izan ziren. Mondrako jokalaria eta zaleek asko sufritu zuten amaieran. Ordiziak, berriz, berdinketa lortzeko ahaleginean, sarrera itsusiak egin zituen.

Hala, Ordiziako jokalaria bat egotzi egin zuen epaileak.

**Lehenengo erregionala**

# Azken unean azaldutako urduritasunak estu ipini zion garaipena Bergarari

**BERGARA**  
**3-2**  
**USURBIL**

**Bergara** | Julio, Oregi, Andoni, Josu, Balza (Hurtado, 70. min.), Erik, Aitor (Martin, 62. min.), Canas, Imanol (Ibarrondo, 85. min.), Jokin eta Laspiur.

**Usurbil** | Imanol, Jokin, Sergio (Zubiain, 60. min.), Xubi, Iban, Jon, Unai, Marregu, Ibon (Riaño, 60. min.), Eneko eta Xabi (Arregi, 60. min.).

**Golak:** 1-0, Imanol (20. min.), 1-1, Rezola (25. min.), 2-1, Imanol (55. min.), 3-1, Canas (70. min.) eta 3-2, Orbegozo (90. min.).

**Epailea:** Herrero jauna. Usurbileko jokalaria bat kanporatu zuen txartel gorriaz.

ko kontraeraso batean, Usurbilek penalti egin zuen, eta Imanolek jarri zuen aurretik etxeko taldea. Izan ere, Bergara agintzen ari zen, batez ere zelai erdian, nahiz eta defentsan hutsen bat edo beste egin. Baina Usurbilek aurrera jo zuen, eta 30. minutuan, epaileak berak bakarrik ikusi zuen penaltia adierazi zuen Usurbilen alde. Berdinketaren gola Rezolak egin zuen. Eta berdinketarekin, etxekoek, aspaldian gertatzen ari zaien bezala, joko aldetik behera egin zuten, nahiz eta kontraerasoan ederki aritu Usurbilgo defentsa makalaren aurrean.

**GOLAK ETA URDURITASUNA**  
Bigarren zatian, Imanolek izan zuen etxekoentzat gol aukera garbia hasierako minutuetan, baina ez zuen sartu. Etxekoak bigarren golaren bila ari ziren, eta horrela, 10. minutuan, kontraeraso on batean Imanolek Bergararen bigarrena sartu zuen. Beraz, Bergarak partidua bideratuta zuen, eta hirugarrena ere sartu zuten Neka Galanen mutilek; golegilea Canas izan zen.

Partidua bideratuta zuen Bergarak, baina azken uneko etxekoek urduritasuna Usurbilek aprobetxatu zuen, eta bigarren gola egin zuten. Golegilea Xabier izan zen.

Jasone Zabala

Partidu gogorra ikusi genuen zapatuan Agorrosingo futbol zelaian. Beheko postuei begira dagoen Usurbil izan zen bergararren aurkaria, eta etxekoentzat partidua erraza zirudiena gogorra eta gorabehera askokoa bihurtu zen.

Lehen zatian Bergara hasi zen agintzen. Erasoko jokaldi ugari egin zituen eta Usurbil ezinean zebilen. Hala, partidua 20. minutuan Bergarak eginda



JOSETXO ARANTZABAL

Jokini falta ugari egin zizkieten partiduan zehar.

**Emaitzak eta sailkapena / Preferente Mailako Txapelketa**

**EMAITZAK**

UDA-Aloña	2-1
Zarautz-Zestoa	0-1
Trintxerpe-Aurrera	3-0
Mondra-Ordizia	1-0
Idiazabal-Hondarribia	1-2
Berio-Hernani	4-3
Anaitasuna-Pasaia	2-2
Touring-Martutene	2-2
Mutriku-Urola	1-0

**HURRENGOAK**

Aloña Mendi-Zarautz
Zestoa-Trintxerpe
Aurrera-Mondra
Ordizia-Idiazabal
Hondarribia-Berio
Hernani-Anaitasuna
Pasaia-Touring
Martutene-Mutriku
Urola-UDA

**SAILKAPENA**

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Zarautz	31	13	10	2	1	24	7
2. Anaitasuna	25	13	7	3	2	19	9
3. Mondra	24	13	7	3	3	17	10
4. Touring	22	13	6	3	4	22	13
5. Zestoa	21	13	6	4	3	17	16
6. Hernani	20	13	6	5	2	28	21
7. Berio	19	13	5	4	4	18	17
8. Ordizia	18	13	5	5	3	12	12
9. Trintxerpe	18	13	5	3	5	14	16
10. UDA	16	13	4	5	4	12	11
11. Pasaia	16	13	4	5	4	17	20
12. Aloña Mendi	15	13	4	4	5	10	18
13. Idiazabal	14	13	3	5	5	13	21
14. Hondarribi	13	13	3	6	4	9	17
15. Urola	12	13	2	5	6	8	11
16. Aurrera	12	13	2	5	6	14	21
17. Mutriku	11	13	2	6	5	10	19
18. Martutene	10	13	2	7	4	14	19



Joxemari Iturralde  
**Hyde Park-eko hizlaria**

**Hyde Park-eko hizlaria**  
Joxemari Iturralde

332 orrialde - 21,00 euro

"Londresera joan ziren 1973ko uda hartan. Euskal Herrian jendea isilik ibiltzen zen sasoiak, Hyde Parkean zahar bat euskaraz hitz egiten aurkitu zuten gerra galduaz. Jadanik ez dute Wight islantegon ziren oroitzen, baina joatekotan ibili zirela bai...."



• LEHENENGO TERRITORIALA

# Partidu orekatu eta gogorra irabazi, eta lider da Bergara

Zortzigarren jardunaldian lortu du Bergarak sailkapeneko lehenengo postua



Mikel Larrañagak hiru gol sartu zituen eta partidu ona egin zuen.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

**BERGARA**  
**29-22**  
**USURBIL**

**Bergara** | Kapelategi, Uribe (2), Agirre (4), Sanchez (4), Pozo, Garcia (1), I. Najera (2), Errasti, X. Najera (1), Lenisoro (1), Ugalde (1), Plazaola (8) eta Larrañaga (3).

**Usurbil** | Arrieta, Larrañaga (2), Urki (2), Onena (7), Beristain, Irazusta (1), Lizaso (4), Argote (1), Castro (1), Montes (2), Portularume (2), Agudo (2) eta Izagirre.

**Bost minuturo golak:** 2-1, 7-5, 8-7, 10-9, 12-10, 14-14, 16-16, 20-16, 22-16, 24-17, 27-18 eta 29-22.

Jasone Zabala

Partidu gogorra jokatu zuten atzo Bergarak eta Usurbilek. Zazpi jardunaldi jokatu ondoren biak partidurik galdu gabe zeuden eta atzoko garaipenarekin Bergarak lortu zuen lidertza.

Hasieratik ikusi zen zergatik dauden sailkapeneko goiko postuetan bi taldeak. Biak ere,

bai defentsan eta baita erasoan lan bikaina egiten hasi ziren. Bergara 5-leko defentsarekin atera zen sendo, beharbada Usurbilek baino presio handiagoa erakutsita. Usurbilen defentsa ere ona izan zen; horretan ederki lagundu zion atezainaren lan bikainak. Markagailuan berdintasuna izan zen nagusi, eta atsedenaldira

14nako berdinketarekin heldu ziren bi taldeak.

**BIGARREN ZATIAK ERABAKI**  
Bigarren zatian, partiduen berdintasuna etxeko taldeak apurtu zuen. Hasierako 15 minutuetan 8-leko partziala egin zuten Josetxo Muniategiren mutilek. Usurbilen jokoak behera egin zuten, eta Bergararen defentsak

gora, eta defentsa on hark etxekoen hainbat kontraeraso ekarri zituen. Bergarrek intentsitate berarekin jarraitu zuten, eta Bergarako Jon Errastiren atezainaren lanak ere lagundu zuten defentsako lanean. Markagailuan abantaila hartu zuen Bergarak eta mantentzen jakin izan zuen partidu amaiera arte, eta lider berria du.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

## Ford Mugarriri ihes egin zion garaipenak

A.G.

Zapatuan Ford Mugarri eta Corazonistak taldeek jokatu zuten norgehiagoka azken ordu laurdenean erabaki zen. Tarte hartan epaileek Ford Mugarriri hainbat jokalarri egotzi zituzten. Gainera, Beñardo Balerdiren taldeak ez zuen aprobetxatu bigarren zatian izandako hiru goleko errenta.

Horregatik guztiatik, garaipena Corazonistas taldeak eskuratu zuen: 36-34.

"Corazonistas taldea sailkapeneko bigarren lekuan dagoen taldea da. Igoera fasea jokatzeko hautagaietako bat da", esan zigun Ford Mugarriri entrenatzaile Beñardo Balerdik.

• LEHEN TERRITORIALA

## Arrasatek irabazi egin zion Leizaran taldeari

A.G.

Lehenengo erregional mailako partidua jokatu zuten atzo Iturripen Arrasate eta Leizaran taldeek. Partidu ona jokatu, arrasatearrak nagusitu ziren: 28-23.

**JOKALARI GUZTIAK**

Aspaldiko partez, Arrasateko taldeak jokalarri guztiak zituen jokatzeko moduan. Hala, etxeko taldeak egindako joko asko hobetu zen. "Lesioengatik eta zigorregatik, bajak izan ditugu azken partiduetan. Gaur jokalarri guztiak izan ditugu eta nabaritu egin da. Gainera, jokalarriak konfiantza hartzen doaz", esan zigun etxeko entrenatzaileak.

• EUSKADIKO GOREN MAILA

# Garaipen eroso lortu zuen Aloñak

**VERKOL ALOÑA**  
**23-9**  
**BERA BERA**

**Verkol Aloña** | Olatz, Eneritz (2), nagoire (2), Jone, Maialen (2), Ainhoa (4), Marina, Miren (4), Erika (7), Rebeka, Iduurre, Olatz eta Onintza (2).

**Bera Bera** | Otero, Jessica (2), Begoña, Curto (3), Pires, Leire, Lohitzune (84), Iratxe, Enara, Maitane eta Miriam.

**Golak:** Atsedenean, 12-4.

Mireia Bikuña

Arazo barik irabazi zuen Aloña Mendiko senior mailako taldeak Bera Bera taldearen aurka atzo jokatu zuten partidua. Donostiako taldeak bederatzi egin zituen, eta horiek gol gutxi dira.

**ALOÑA NAGUSI HASIERATIK**  
Erasoko lanari esker Maitane Ruizen neskek hasieratik agindu zuten markagailuan. Hala, Bera Berari kosta egin zitzaion lehen gola egitea. 14 minutu arte ez zuen golik egin. Horregatik guztiatik, Aloñak aldea zabaldu zuen marka-



Argazkian, Aloñako jokalarri Erika penaltia jaurtitzeko prest.

JOSETXO ARANTZABAL

gailuan. Atsedenean, 12-8 erakusten zuen markagailuak.

Eta bigarren zatian gauzak ez ziren askorik aldatu. Oñatiko

taldeak poliki-poliki tartea zabaldu zuen. Hala, lehia amaitzeko sei minutu falta zirela 13 goleko errenta zuen Aloñak.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Lea Corazonistas-Ford Mugarri 36-34

**EUSKADIKO GOREN MAILA**

Verkol Aloña-Bera Bera 23-09

**LEHENENGO TERRITORIALA**

Arrasate eskubaloi-Leizaran Ernio 28-23

Bergara-Usurbil 29-22

**JUBENILAK MUTILAK**

Bergara-Amenabar 26-23

**KADETE NUTILAK**

Gatz Museoa Jakion-Usurbil 28-28

Aloña Mendi-Katillu 33-37

**KADETE NESKAK**

Arrasate-Alaves 5-37

Leizaran-Verkol Aloña 15-24

• GIPUZKOAKO TXAPELKETA, SENIOR NESKAK

# Egindako defentsak erabaki zuen

*Eskoriatzarrek partidua hasieratik kontrolatu bazuten ere, taula azpiko lanean ez ziren fin ibili; hala eta guztiz ere, irabazi egin zuten*

**ESKORIATZA**  
**67-54**  
**BILINTX**

**Eskoriatza** | Calderon, Laborda (6), Gomez (4), Caceres (4), Balzategi, Alarcia, Usabiaga (15), Salaberria (6), Exposito (16), Soriano, Etxeberria (9) eta Serrano (7).

**Bilintx** | Eceiza (5), Saez (18), Ezker (6), Ibarogoyen (2), Aranburu (2), Aizpurua (2), Mestres (2), Errazkin (4), Rodriguez (3), Esnaola (2) eta Gonzalez (8).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena: 17-7. Bigarren laurdena: 30-25. Hirulaurdena: 42-33. Laugarren laurdena: 67-54.

Jasone Zabala

Ez zen partidua erraza izan zapatuan Eskoriatzako neskek Donostiako Bilintx taldearen aurka jokatutakoa.

Txema Sanchezen neskek saillapeneko lehenengo lau postuen artean jarraitu ahal izateko irabazi beharreko partidua zen zapatukoa. Hasieratik atera

ziren presio egiten etxeokak, eta donostiarrak presioa apurtu ezin zebiltzan. Lehen laurdenean, etxeok kontreraso bat bestearen atzetik egin zuten eta aldea hartu zuten markagailuan. Donostiarrak bost minutu behar izan zituzten lehen saskiratzea egiteko. Etxeok egindako partziala beldurtzeko modukoa izan zen: 13-0. Hala, Eskoriatzak presio defentsa utzi eta jokoa pixka bat moteldu zuen eta lehen laurdena 17-7 amaitu zen.

Bigarren laurdenean, berriz, donostiarrak zonakako defentsan jarri ziren, eta fruituak eman zizkion Bilintx taldeari defentsa hark. Hura ikusita, etxeok entrenatzaileak aulkia mugitu zuen, aldaketak egin zituen zonakako defentsa apurtzeko, baina ez zuen biderik topatzen. Horrela, atsedenaldira 30-25 heldu ziren.

## JOKO ARGIRIK GABE

Bigarren zatian, kanpoko taldeak zonakako defentsa egiten jarraitu zuen. Jokoa nahiko azkarrak eta nahasia bihurtu zen, eta etxeokentzat jokoa gelditzea zen



JOSETXO ARANTZABAL

Exposito izan zen eskoriatzarren saskiratzaile nagusia, 16 puntu eginda.

komenigarriena. Bi taldeek puntu eskasia handia erakutsi zuten laurden hartan, eta bost minutu saskiratu gabe egon ziren. Kontraeraso ugari bai baina ezin zuten punturik lortu, taula azpian ez zuten asmatzen eskoriatzarrek. Hala, hirugarren laurdenean amaierara 42-33 heldu ziren.

Laugarren laurdenean, zonakako defentsan jarri ziren etxeokak, Bilintxen joko eta saski-

ratze gehienak barruko jokoan lortzen zituztela ikusirik, batez ere Saez jokalariek (18 puntu).

Partidua amaitzeko lau minutu falta zirela, Bilintx presioa egiten hasi zen, markagailuan Eskoriatzak zuen abantaila murrizteko asmotan, baina behin eta berriz faltak egiten zituzten.

Azken bi minutuetan Bilintx ezinean aritu zen, eta Eskoriatzak irabazi egin zuen.

• LEHENENGO MAILA

## Arrain handiak txikiak baino joko hobea erakutsi zuen Iruñean

**ERRO EUGI**  
**67-82**  
**MUGARRI ALKESA**

Asteleheneko Goienkaria

Garrantzi txikiko partidua jokatu zuten Iruñean arrasatearrek, saillapenean azkeneko postuan dagoen Erro Eugi taldearen aurka.

Mugarri Alkesakoak jokalarik gutxierekin joan ziren, lesioen eraginez, baina erraz irabazi zuten lehia.

Lehen laurdenean partzial nahiko handia egin zuten Zurututzaren mutilek (9-23), eta handik aurrera markagailua alde zutela jokatu zuten. Bigarren laurdenean, berriz, etxeokak hurbildu egin ziren markagailuan, baina arrasatearrek ez ziren urduri jarri.

## ARAZORIK GABE

Hirugarren laurdenean, abantaila murrizteko asmoarekin, lau puntura hurbildu ziren etxeokak. Baina laugarren laurdenean, etxeokak etsi egin zuten eta Mugarri arazorik gabe irabazi zuen.

Bestalde, eguaztenean partidua garrantzitsua izango dute etxean, Padura liderraren aurka. Igoera faserako balia garrria izango den partidua izango da. Lehen faseko azken partidua, berriz, Logroñon jokatuko dute Arrasatekoek.

• GIPUZKOAKO LIGA, GAZTE MAILAKO MUTILAK

# Hirugarren garaipena Aloñak

**ALOÑA MENDI**  
**69-60**  
**CAFES AITONA B**

**Aloña Mendi** | Osa, Uribetxeberria (3), Cruickshank (32), Izurrategi (6), Escudero, Sanchez (19), Aiastui (2), Orueta (3), Casado (2), Zabaleta (2) eta Urkia.

**Cafes Aitona B** | Beilach (15), Chocarro (815), Vaqueriza, Gonzalez, Astarlos, Maestre, Maeso (17), Ortega, Talavera, Otxoa (5), Camino (8) eta Iturralde.

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena: 16-13. Bigarren laurdena: 33-25. Hirulaurdena: 49-48. Laugarren laurdena: 69-60.

Mireia Bikuña

Gazte mailako Gipuzkoako ligako zortzigarren jardunaldiari zegokion partidua jokatu zuten zapatuan Aloña eta Cafes Aitona B taldeek. Eta oñatiarrek txapelketako hirugarren garaipena lortu zuten.

## ABANTAILA, HASIERATIK

Partidu hasieratik hartu zuen abantaila markagailuan etxeok taldeak. Aloñak bost puntutan jarri zuen errenta lehen laurdenean, 9-4 eta 16-11.

Bigarren laurdenean, berriz, abantaila hamar puntukoa iza-



JOSETXO ARANTZABAL

Xabier Oruetak hiru puntu lortu zituen zapatuko partiduan.

tera heldu zen: 29-19. Bada, Donostiako taldea atsedenera sei puntuko desabantailarekin iritsi zen: 31-25.

Eta hirugarren laurdena izan zen partiduko parekatuena. Cafes

Aitona taldeak hobeto jokatu zuen laurden hartan. Hala, laugarren tartearren hasieran puntu bakarreko errenta zuen Aloñak, 49-48. Baina Oñatiko taldeak ez zuen hutsik egin, eta irabazi egin zuen.

## Emaitzak

MAILAZ MAILA	
<b>LEHENENGO MAILA</b>	
Erro Eugi-Mugarri Alkesa	67-82
<b>SENIOR NESKAK</b>	
Lasarte Oriá-Aloña Mendi	56-55
Eskoriatza-Bilintx	67-54
<b>GAZTE MUTILAK</b>	
Ordizia-Mugarri Alkesa	58-66
Aloña Mendi-Cafes Aitona	69-60
<b>GAZTE NESKAK</b>	
Txirrita-BKL CAF	61-45
Eskoriatza-St. Lazkao txiki	35-29
<b>KADETE MUTILAK</b>	
Atco. Sn.-Sn.-Ford Mugarri	49-73
CD Internacional-Bergara	41-67
Errobide-Aloña Mendi	36-59
Atco. Sn.-Sn.-Constru. Alkesa	80-67
<b>KADETE NESKAK</b>	
Eskoriatza-Antigua Berri	57-54



**OHOREZKO GAZTEAK**



**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK**



**NESKAK (8NAKOA)**



**OHOREZKO KADETEAK**



**LEHENENGO ERREGIONALA**

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Txantxi (prestatzaile fisikoa), Jon Soto, Joseba Errasti, Jokin Baltzategi, Mikel Olatu (gatua), Gorka Larrañaga, Erik Badillo, Xabier Gisasola eta Ander Sesma.  
 Beheko ilaran: Eloy Crespo, David Canas, Eldin Zivojevic, Jon Urteaga, Julen Hurtado, Markel Ilzarbe, Asier Ibarra





# Irrol Elkartea 06-07



regi, Neka Galan (entrenatzailea), Lutxi Herzog (delegatua), Netzar Zivojevic (2. entrenatzailea), Bittor Gomez (delegatua), Josu Agirrezabal, Imanol Cabanillas eta Jokin Pavo.

## LEHENENGO MAILAKO KADETEAK



## LEHENENGO MAILAKO INFANTILAK



## INFANTILAK A



## INFANTILAK B



## ALEBINAK



INDUSTRIAS



Barriolaren lesioa dela-eta astebete atzeratu da lau t'erdiko finala. Hala, hilaren 17an jokatu da, Gasteizeko Ogetan. Gu finala jokatu aurreko azken partidari izan gara

Irujorekn, Bergarako pilotalekuan. Izan ere, San Andres eguneko jaialdi nagusia aurten ere Bergaran egin da, Eibarko Astelenan beharrean. Iberoko pilotariak aurten

jokatutako bi txapelketa nagusiak irabazi ditu: binakakoa Eulaterekin eta buruz burukoa. Urtea guztiz borobiltzeko lau t'erdiko txapelketa eskuratu gura du.

JUAN MARTINEZ DE IRUJO | PILOTARIA

# "Zertarako gauza naizen erakutsi eta finala irabazteko gogoz nago"

Arantzazu Ezkibel

**Nola ikusi duzu zure burua finala jokatu aurreko azken partiduan?**

Momentu batean susto txiki bat izan dut, min hartu eta lesioa izan zitekeela pentsatu dut-eta. Baina azkenean ez da ezer izan eta partidu amaitzeko ez dut arazorik izan.

Partiduari dagokionez, oso gustura geratu naiz. Ondo jokatu dut, eta hori da garrantzitsuena, sentazio onarekin geratzea.

**Finalean Abel Barriola izango duzu aurrean. Nola ikusten duzu Leitzako pilotaria?**

Oso indartsu dago eta ondo aritu da, batez ere ligaxkako partiduetan. Titinen aurkako eta Aimarren aurkako partiduetan erakustaldi bikainak egin ditu. Bi eskuekin dabil ondo, pilotari abiadura handia ematen dio eta tantoak ondo amaitzen ditu. Beraz, partidua irabazi gura badut ondo jokatu beharko dut. **Lesio serio batetik ateratzen berria da eta maila oso ona ematen ari da Barriola. Hala ere behar baino gutxiago hitz egin da haren jokoaz.**

Arazo larria izan du eskuan eta urtebete egon da pilotan jokatu gabe. Hori dela eta, jende gutxi uste zuen finalera iristeko gauza izango zenik. Ni asko poztzen naiz harengatik. Beharrezkoa zuen halako final batera iristea lehengo bera dela ikusteko, eta merezimendu osoz irabazi du finalerako txartela.

**Nor gura du zenuen aurkari bezala: Barriola ala Olaizola?**

Berdin zitzaidan baten aurka edo bestearen aurka aritu. Azken finean, onenaren aurka aritu behar izaten da, eta kasu honetan Barriola izan da bietatik onena. **Txapelketan zehar, sakez tanto gehien egin dituen pilotaria izan zara Barriolarekin batera. Non uste duzu egon daitekeela finalaren garaia?**

Buruz burukoan sakea eta errestoa dira garrantzitsuenak.

Hala ere, bere jokoa egiteko gai izango den pilotariak izango du partiduen giltza. Hau da, nik nire jokoa egin behar dut eta Abeli bere jokoa egiten ez utzi, nire eremura ekarri behar dut. Partiduen jabetza hartzen duena izango da txapelketa

**Eta gustuko al duzu Ogeta, finalerako aukeratu duten pilotalekua?**

Oso pilotaleku ona da. Gustuko ditut bai Ogeta eta baita Atano ere, finalak jokatzeko pilotaleku bereziak direla uste dut. Ikusle asko batzeko gai dira eta pilotaleku bezala ere ezaugarri onak dituzte.

**Aurten Asegarce enpresak ez du txapelketa nagusirik irabazi. Lau t'erdiko finala ere Asperentzat izango da. Txapelak irabaztea bolada kontua izaten da?**

Bai, kirolean hori gertatzen da, boladak izaten dira. Urte baten ondo aritu arren, hurrengoan, agian, ez duzu ezer egiten. Aurten Aspe irabazi ditu titulu guztiak, baina datorrena beste urte bat izango da eta orduan beste era batera izan daitezke emaitzak.

**2015a arte luzatu duzu kontratua eta inoiz pilotan izan den klausula handiena jarri dizute (3 milioi euro). Futbol jokalarien kontratuekin ere alderatu dute... Zer emango dizu horrek?**

**"Lesioaren ondoren jende gutxi uste zuen Barriola finalera iritsiko zenik"**

**"Enpresak nigan izan duen konfiantza pilotalekuan eskertu behar dut"**



Eguenean Bergarako pilotalekuan harrapatu genuen Irujo, San Andres eguneko jaialdi nagusian.

Nik ez dakit nolakoak diren futbol jokalarien kontratuak, dakidan bakarra da 2015a arte kontratua dudala, eta horrek lasaitasun handia ematen dit; beste bederatzita urtez egongo naiz eta Aspen. Kontratu berri horrekin ikusi da enpresak nigan kon-

**"Profesionala naizenetik sei final jokatu ditut, eta hori oso emaitza ona da"**

**"Realaren egoerarekin baino finala prestatzen sufrituko dut gehiago"**

fiantza osoa duela; beraz, nire lana nigan erakutsi duten konfiantza eskertzea da, eta hori pilotalekuan egin behar dut.

Niri irabaztea gustatzen zait eta goian egon nahi badut gogor egin beharko dut lan, ezingo naiz lo geratu. Kantxara orain arte bezala aterako naiz, irabaztera.

**Aurtengo urtea oso ona izan da zuzetaz. Olaizolaren aurka buruz buruko txapela irabazi zenuen eta Eulaterekin batera binakakoa. Lau t'erdiko txapela falta zaizu urtea borobiltzeko?**

Bai, duda barik. Finala jokatzeke gogoz nago; zertarako gauza naizen erakutsi eta irabazteko gogoia daukat. Baina ez badut irabazten ere ez da ezer gertatzen; txapeldunorde geratuko naiz eta aurrera begira errepikatzeke moduko urtea izango da.

**2003an egin zenuen debuta. Orduetik hona buruz buruko bi txapela irabazi dituzu (2004 eta 2006)**

**eta binakakoak beste bi (2005 eta 2006). Harro egoteko moduko garaipen zerrenda da.**

Bai, egia esan, ez dut kexatzeko arrazoirik. Hiru urte hauetan sei final jokatu ditut, eta hori oso emaitza ona da. Aurrerantzean txapela gehiago irabazteko orain arte bezala lan egin behar dut, hori da orain nire eginbeharra.

**Pilotaren munduan esandakoa da pilotak asko irabazi duela Martinez de Irujorekin. Ze iritzia duzu horri buruz?**

Ez dakit zer esan, uste dut ez naizela egokiena horri erantzuteko. Atsegin dudalako aritzen naiz pilotan, eta nire helburua ikusleek pilotaz gozatzea da.

**Badakigu Realzalea zarela. Finala prestatzen ala aurtengo Realaren egoerarekin sufrituko du Irujok gehiago?**

Nik finala prestatzen gehiago sufrituko dut, azken finean nire lana da-eta. Besteari hobe bueltarik ez ematea.

EUSKADIKO TXAPELKETA | DEBAGOIENETIK SEI IGERILARIK HARTU ZUTEN PARTE: OÑATITIK BATEK ETA BERGARATIK BOSTEK

# Debagoieneko igerilariak ondo aritu ziren

*Debagoiendarrek prestakuntza bezala hartu zuten asteburukoa, otsailean egingo diren txapelketen zain*

Jasone Zabala

Zapatu goizean hasi zen Bergaran Euskadiko Igeriketa Txapelketa eta atzo arratsaldean amaitu zen. Guztira 266 igerilari eman zuten izena, baina parte hartu zutenak gutxiago izan

ziren, 200 inguru, hainbat talde-tan banatuta: Gipuzkoatik, 13 talde etorri ziren; Bizkaitik, hamar talde; Arabatik, bost talde; eta Nafarroatik sei talde. Guztira 34 proba gehi errelebuak izan ziren, lau estilotan banatuta: krol estiloa, bizkar estiloa, tximeleta esti-

loa eta bular estiloa; eta parte-hartzaileak bi mailatan banatu ziren: absolutuak eta promesak.

Debagoienetik guztira sei igerilari hartu zuten parte, eta bakoitza estilo eta distantzia ezberdinetan. Guztiek ere lan ona egin zuten, eta kontuan hartu behar da, nahiz eta asteburukoa txapelketa garrantzitsua izan, otsailean egingo diren Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetarako prestatzen ari direla gure igerilariak.



JOSETXO ARANTZABAL

Igerilariak prest txapelketako proba bati hasiera emateko.

## • POZIK TXAPELKETAN EGINDAKO LANAREKIN?



ANA BALENTZIAGA | BERGARA

"Orokorrean gustura nago egin dudana lanarekin. Otsaileko txapelketan hobeto ibiliko gara".



NIELKA IBARGUREN | BERGARA

"Nahiko ondo aritu naiz, nahiz eta irteeraxarra egin dudana. Azken metroetan huts egin dut".



ANDER ZARKETA | OÑATI

"Egindako denbora nahiko ona izan da, nire marka mantendu dut. Kosta egin zait proba amaitzea".

## DEBAGOIENEKOEN LANA, ONA

Hain zuzen ere, Oñatitik, Ander Zarketak hartu zuen parte 200 metro bizkar estiloan, eta bere marka ondu zuen; beste bost igerilari Bergarakoak izan ziren: Ana Balentziagak, 100 metro estilo librea, 6. postua lortu zuen; 200 metro estilo librea, berriz, lan ona egin zuen; eta 100 metro estiloetan, 4. postua lortu zuen. Nielka Ibarguren, 100 metro bular estiloan, lan ona egin zuen, nahiz eta ezin izan zuen proba amaitu. Kepa Irizarrek 50 metro eta 100 metro tximeletan marka hobetu zuen. Peru Alustiza 50 metro tximeletan nahiko ondo aritu zen, nahiz eta ez zuen bere marka hobetu. Eta Aitor Alberdi 50 metro estilo librea ondo aritu

zen, eta biraketa ondo ez egin arren, bere marka ondu zuen.

Esan beharra dago txapelketan bi marka hautsi zirela: alde batetik, 1.500 metrokoan estilo librea, infantil mailan, Euskadiko marka hobetu zuen Oarsoaldea taldeko Inaxio Arozenak,

eta 100 metro libreetan, infantil mailan, Bidasoa taldeko Yeray Lebonek Espainiako marka hobetu zuen.

Aipatzekoa da, bestalde, jende asko hurbildu zela Bergarara bi egunetan zehar txapelketaren nondik norakoak ikustera.



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, SHARP eta EDESA etxeresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.



**AURREKONTUAK KONPROMISO BARIK.**



**BERMEA 2 URTE**  
1.850 X 598 X 590 mm  
**HOZKAILUA COMBI 4FAC495**  
360 € 59.899 pta



**BERMEA 2 URTE**  
1.700 X 600 X 600 mm  
**HOZKAILUA 2 ATE**  
220 € 36.605 pta



**BERMEA 2 URTE**  
**ONTZI-GARBIGAILUA LJA - 0140**  
200 € 33.277 pta



**BERMEA 2 URTE**  
1.000 b/min 5 kgr.  
**GARBIGAILUA LA-110**  
240 € 39.933 pta

## "RENOVE PLANA" 75 euroko deskontua



**"EVA" MAHAIA 110x70 cm**  
365 € 60.731 pta



**TELEBISTA SHARP LC-26P55 LCD 26"**  
899 € 149.557 pta



**TELEBISTA SHARP LC-32P70 LCD 32" LTD BARNE**  
1.250 € 207.950 pta



**"MARIAM" MAHAIA 110x70 cm**  
270 € 44.924 pta

**ETIKETA ENERGETIKOA**



Eraginkortasun gehien: A+, A, B, C, D, E, F, G  
Eraginkortasun gutxien: G

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Doke taldeak Barrutiaren 'Accto para la Noche Buena' antzeztuko du Arrasaten eta Aramaion | 24
- Leo Bassik Elgetako Espaloia bete zuen zapatuan 'La Revelacion' antzezlanarekin | 25

Alfontso Ugarteren omenezko ekintzak eta beka aurkeztu ditu Antzuolako Udalak | 27

## DEBAGOIENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



JOSETXO ARANTZABAL

Oholtza gainean gustura zeuden amaieran Unnëa taldekoak.

**DANBAKA** | TALDEEN MAILAZ GAIN, ASKOTARIKO PROPOSAMENAK IKUSTEN DIRA AURTENGOAN

## Gero eta alde nabarmenagoak baita musika proposamenetan ere

*Jim TNT bakarlariak klasikoak omendu zituen, Raul Lasak zer ikusia eman zuen eta amaitzeko bi talde gazte eta melodiko: Unnëa Oñatitik eta Scam Aretxabaletatik*

Jon Berezibar

Saio bakarra besterik ez da gertzen finalerako, eta, egubakoitzeko emanaldiak ikusita, taldeak elkarren artean ia konpara ezinak dira. Ez taldeak hobekiak edo txarragoak direlako –hor badaude-eta diferentziak–, baizik eta proposamenak askotarikoak izaten dabiltzalako.

Jim TNTk ondo apurtu zuen izotzaldia. Ohiko moldeetatik irten barik taxuzko emanaldia egin zuen. Oso ondo dauka definituta Jimek egiten duen musika eta bere erreferente diren musikarien oinordeko duina dela erakutsi zuen. Gustura ibili zen, gainera, arrasatearra egubakoitzean, behar baino denbora luze-

agoz jo zuen-eta. Azkenean, friso (banbalina) artetik amaitzeko abisua eman behar izan zioten, Raul Lasaren txanda heldu zelako. Eta hark ere oholtzari probetxu galanta atera zion.

Rakel korista psikotikoaren laguntza izan zuen Raul Lasak bere abestiak eszenaratzeko. Gutxi geratu ziren epel. Probokazioa helburu, Lasak eszenaratzeari erabili zuen abestiak indartzeko, baina azkenean antzerkiak irentsi zuen kontzertua eta barre algarak entzun baziren ere, arlo musikala bigarren mailan geratu zen. Agian ez zen Danbaka horretarako lekua. Hala ere, txalo beroak jaso zituen *La polla de mi jefe* abestiak. Oñatiarrak igo ziren taulara hurrengo.

### Fitxa teknikoa

#### • JENDE KOPURUA

Hasieran ematen zuen jende gutxitxo agertuko zela, baina bete egin zen. Talde bakoitzak jarraitzaile sorta polita erakarri zuen. Guztira 400 bat lagun egon ziren egubakoitzean.

#### • ARGIA ETA SOINUA

40.000 watt argitan eta 8.000 soinuan.

#### • BIDEO AURKEZPENAK

GOITBko lankideei ere zorionak talde bakoitzaren aurkezpen bideoak bikainak izaten dabilta-eta aurrean. Benetan aipatzekoa.

Abesti melodikoak aurkeztu zituzten eta ikusleekin jarrera polita izan zuten. Talde gazte da eta nabari izan zen. Poparen eremu erosoetatik irten eta arrisku handiagoa hartu beharko luke, hala ere. Denbora badaukate, eta nahi izanez gero gehiago erakusteko aukerak ere izango dituzte. Amaitzeko, beste talde gazte batek jo zuen: Scam, Aretxabaletatik.

Haiek ere melodiko agertu ziren, baina popa baino gehiago hardcorea zuten abiapuntu. Ondo jo zuten, erritmo aldaketekin arriskatu eta oraindik taldearen nortasunaren bila badabilta ere, neurri baten sinesgarriak izan ziren banda modura. Etorbizuna ere aurretik Scamek.

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



**JIM TNT** | ARRASATE

**Adituak esana /**

**Igor Susaeta, musika kazetaria**

"Pertsonala izan da eta gustatu zait; hasieratik egon da ondo. Hitzetan iruditu zait hutsa, betiko gaiekin (mozkorraldiak, biharamuna, lana...) etorri da. Hala ere, autentikoa irudi zait, gaurko onena bai, behintzat. Bakarleri moduan bere lana ondo egin du eta harmoniak ere ukitu ona eman dio".

**Ikusleek esana / Amaia Zubia**

"Gustatu zait, benetan ondo egon dela iruditzen zait eta oso ondo jotzen du Jaimek. Guztiz berezia ere ez da izan, baina musikari ona dela ikusi da".

**Kazetariak esana / Jon Berezibar**

"Oso ondo egon da. Estilo garbia dauka eta gustura jardun du. Kutsu klasikodun abestiek eta letrekin iragan garaietara begiratzen du gehienbat Jim TNTk, baina musika aldetik zalantzarik ez dago oso ondo jo duela".

**Bakarleriak esana**

"Bakarka taldearekin bezain gustura egon naiz, oraingoan ere eroso sentitu naiz. Banderekin babes handiagoa daukazu eta beste modu baten aurkezten zara. Hala ere, oso gustura egon naiz, ze abestien zerrenda inprobisatu egin baitut, eta behar baino abesti gehiago jo ditut".



**RAUL LASA** | ARRASATE

**Adituak esana /**

**Igor Susaeta, musika kazetaria**

"Proposamen berri guztiek ez dute zertan beti onak izan, eta batez ere hori, *movida madrileña*-ko kutsu horrekin. Lau tontakeria egitea ez da nahikoa. Jendea errotuta egon da, baina niri ez zait batere gustatu. Antzerkia da aipagarriena, baina hau musika lehiaketa da. Musikalki hutsa, eta ez da batere berritzailea ezta probokaztzailea ere".

**Ikusleek esana / Amaia Zubia**

"Barre, behintzat, egin dugu *show*-arekin. Oso ondo pasatu dut. Ikuskizuna izan da gehienbat, baina oso ondo egon da".

**Kazetariak esana / Jon Berezibar**

"Antzerkiak irentsi du musika eta *show*-ak azkenean abestiak ere zapaldu egin ditu. Letra aldetik zalantza barik hura txapeldun, baina ez du asmatu ikuskizunaren planteamenduan, hasierako sarpesaren ostean errepikakor egiten delako. Ikuskizuna oso ona, baina agian ez zen lekurik aproposena horretarako".

**Taldekiek esana**

Buzkantz kooperatibisten enpatxuaz osteko balorazioetarako apetitu txikiarekin geratu zen Arrasateko juglare berria. Aldamenean zuen korista histrionikoaren aurpegiarekin geratzen gara, beraz.



**UNNĒA** | OÑATI

**Adituak esana /**

**Igor Susaeta, musika kazetaria**

"Oso arinak iruditu zaizkit, estetika bikain zainduta, baina musika arinegia. Estetikaz larregi arduratzen direnek ez naute konbentzitzen. Hori bai, urruti irits daitezke, oso *salgarriak* dira-eta. Arinegiak izan dira, ez indar, ez emozio... Ezer ere ez".

**Ikusleek esana / Amaia Zubia**

"Ez nuen taldea ezagutzen, eta asko gustatu zait egin duten musika. Estilo aldetik asmatu egin dutela iruditzen zait, gero eta gehiago entzuten da hemen ere. Gainontzeko taldeen erreferentzia gehiago neuzkan, baina UnnĒarekin ezustekoa izan da".

**Kazetariak esana / Jon Berezibar**

"Oso ondo egon dira, baina zerbait falta zitzaien abestiei. Pauso bat aurrerago joan beharko lukete eta gehiago arriskatu. Talde moduan ondo, baina ohiko moldeetatik irten beharko lukete".

**Taldekiek esana**

"Pentsatu baino lasaiago ibili gara eta kantuek behar bezala ateratu dira; entsegu dezente egin ditugu kontzertuak prestatzeko eta buelta asko eman diegu kantuei. Jende ugari etorri zaigu Oñatitik babesa ematera, eta benetan eskertzen dugu hori. Motz egin zaigu, baina hori ona izaten da".



**SCAM** | ARETXABALETA

**Adituak esana /**

**Igor Susaeta, musika kazetaria**

"Hardcore melodiko horren oso zale ez banaiz ere, hain gazte izateko ausartak iruditu zaizkit. Erritmo aldaketak, bizitasuna... gustatu zait, baina tarteka nahasgarria egiten zen. Hala ere, berotu ahala itxura hobea hartu dute. Bateria oso ona da, inor aipatzekotan".

**Ikusleek esana / Amaia Zubia**

"Gehien gustatu zaidan taldea hori izan da, zuzenean indartsu aritu dira. Nik oso ondo ikusi ditut gazteok. Taula gainean moldatzen direla ikusi da eta kontzertua oso ondo egon da".

**Kazetariak esana / Jon Berezibar**

"Dagoeneko larregi esplotatutako estiloa egiten dute, eta horregatik inor ezustean harrapatzea gaitzagoa da. Taldeak, baina, ez du erosotasunean geratu nahi izan eta erritmo aldaketekin-eta arriskatu dute. Ondo egon dira eta gaztetasuna alde daukate etorkizunerako".

**Taldekiek esana**

Ahal duguna egin dugu eta gustura geratu gara. Aukera hau aprobetxatu nahi genuen eta prestatuta etorri gara. Baxujole berriarekin gabiltza eta azkenaldiko aldaketei egin diegu aurre. Hala ere, ondo joan da guztia. Balorazioa positiboa da oso.

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



## Nor bere estiloan

Usoa Agirre/Maider Arregi

Kontzertuaren hasieran giroa nahiko hotz eta jende gutxi zegoen. Baina gauak aurrera egin ahala hasi zen aretoa betetzen eta azkenerako giro polita egon zen.

**Jim TNTk** bere jarraitzaile finenak ekarri zituen. **Los Cretinoseko** taldekideak, besteak beste. **Jaimek Amaia** izan behar zuen lagun, baina zarzuela zuela-eta ezin izan zuen Elgetan egon. Hala ere, beste neska baten laguntza izan zuen taula gainean; bere arrebak abestu zuen kantu pare batean. Eta oso ondo abestu, gainera!

Gaueko ikuskizuna **Raul Lasak** eman zuen. Eta, nola ez, berarekin irten zen aktore bilbotarrak, **Rakelek**. Itxura xebearekin irten ziren biak ere, paperean ondo sartuta. Jendeak barre majo egin zuen Rakelen antzezpenearekin, eta atzean zegoen jendea ekarri zuten aurreraino. Ordura arte giroa hotz samar zegoen, baina Raul Lasaren emanaldiak giroa berotu zuen.

**Unnëakoak**, abenduaren 1a hiesaren aurkako eguna dela omenduz, xingola gorria gitarran zutela irten ziren. Debagoiengan geroz eta indar handiagoa hartzen ari den pop estiloa gogotsu erakutsi zuten. Ez da guztia punka eta rocka izango, ezta?

**Scameko** gazteak izan ziren gaua itxi zutenak. Vans markako zapatilekin irten ziren denak; **Joxebi** managerrak gomendatu ote die? Han zebilen beraien manager fina argazkiak atera eta atera. **Punkeroak** izateaz gain, **maceroak** ere badirela ikusi genuen, han zituzten-eta baterian itsatsita Macintosheko pegatinak.

Musika bezain beste zaintzen dute estetika oraingo taldeek. Nork bere estiloari dagokion janzkera eta eszenaratzea egin zuten. Edizio honetan garbi geratu da eszenaratze ezohikoak egiteak eta publikoa erakartzeak garrantzi handia duela. Ea, bada, hurrengo kontzertuan ze bitxikeria ikusten dugun!



Egur handien Scamekoek eman zuten egubakoitzean.



Raul Lasak.



Ikusleekin jator eta gertuko Unnëakoak.



Bakarlariaren planta guztia du Jim TNTk.



Goienako langileak eta taldeetako kideak elkarrekin afaltzen.

### • IKUSLEEK ERE IRITZIA EMAN DIGUTE

AMAIA ARREGI | OÑATI

"Unnëa gustatu zait gehien. Aurretik abestiak ezagututa etorri naiz eta aipatzekoa iruditzen zait CDan baino soinu hobea dutela abestiek zuzenean. Itxura ona hartu diet eta taldeak asko hobetu du. Estiloa lasaia izan arren txukun ibili dira eta asko gustatu zait haien emanaldia".

MIKEL ITURBE | ARRASATE

"Ikuskizunaren jaun eta jabe Raul Lasak izan da, zalantzarik gabe. Letrak eta antzerkia izugarriak izan dira eta ondo jakin du ikuskizuna eramaten. Orijinalena, behintzat, hura izan da eta arriskatzen jakin du. Beste gauza bat da apustua ondo edo txarto aterako zaion".

AINHOA MURILLO | ARETXABALETA

"Unnëa gustatu zait estilo aldetik eta gus-tuko dudalako egiten dutena. Espero baino indar handiagoa daukate zuzenean, eta abestiak landu dituztela ikusten da. Berdina esan dezaket Scam taldearengatik. Haiek, gainera, erosoago ikusi ditut ohol-tza gainean talde modura".

IÑAKI ARKARAZO | ARRASATE

"Gustatu, gustatu, bat ere ez, modu berezian harritu ez nauten taldeak izan dira-eta. Hala ere, azkeneko bi taldeak, Unnëa eta Scam, etorkizun luzea daukate aurretik eta oraindik erakutsiko dute gehiago. Nortasuna falta zaie, baina talde moduan ez ditut txarto ikusi".

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



Oñatitik popa, Unnëakoen eskutik.



Arrebaren laguntza izan zuen Jim TNTk abesti baten.



Rakel aktorea izan zuen lagun Raul Lasak.



Azkenak jo arren, jende ugari geratu zen Scamekoak ikusteko.

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua da 1,20 euro+BEZa; eta Espaloian jarritako kutxetan.

- 1 DRAKES**  
ONATI  
Botoen %17,32
- 2 LITTLE, LITTLE, MUCH**  
ARRASATE  
Botoen %16,94
- 3 KLAKSON**  
ANTZUOLA-ZUMARRAGA  
Botoen %10,92
- 4 ABY-KEM**  
BERGARA  
Botoen %9,85
- 5 ANAL BAG**  
ARRASATE  
Botoen %8,24
- 6 RAUL LASA**  
ARRASATE  
Botoen %7,26
- 7 UNNËA**  
ONATI  
Botoen %5,79
- 8 SCAM**  
ARETXABALETA  
Botoen %5,57
- 9 THE 5 TWISTERS**  
ARRASATE  
Botoen %4,97
- 10 BELCEBLUES**  
BERGARA  
Botoen %2,08
- 11 IGOR**  
ARETXABALETA  
Botoen %2,01
- 12 OZEN**  
ARRASATE  
Botoen %1,67
- 13 MALENKONIA**  
ONATI  
Botoen %1,67
- 14 LOS CRETINOS**  
ARRASATE  
Botoen %1,43
- 15 MATX**  
ELGETA  
Botoen %1,27
- 16 LOS CRETINOS**  
ARRASATE  
Botoen %0,96
- 17 MAHASTER RIVER**  
BERGARA  
Botoen %0,77
- 18 JIM TNT**  
ARRASATE  
Botoen %0,36
- 19 AZKAITER PELOX**  
BERGARA  
Botoen %0,34
- 20 INAELECTRIK**  
ARETXABALETA  
Botoen %0,34

Kontzertuak

ABENDUAK 15

Espaloia | 22:30

- Inaelectrik
- Little, Little, Much
- The 5 Twisters
- Anal Bag

IKER ETXABURU |  
ARETXABALETA

"Jim TNT eta Scamen kontzertuak gustatu zaizkit gehien. Lehenari estilo handia ikusten zitzaien eta oso ondo jo du eta Scamekoek indarra eman diote gauari, ze bes-tela nahiko emanaldi lasaiak izan baitira musika aldetik. Orokorrean ikuskizun polita izan da guztiena".

MAIDER ARANBURU |  
ARRASATE

"Bat aukeratu behar bada Jim TNT esango nuke. Bakarlariek beti zailago izaten dutela iruditzen zait, ze eurek bakarrik egin behar baitiete aurre ikusleei, eta Jim lasai eta eroso ikusi dut. Musika aldetik klasikoa izan da oso, baita hitzetan ere, baina estilo bereziarekin ere".

JON BERROETA |  
OÑATI

"Raul Lasa eta Jim TNT nortasun handikoak iruditu zaizkit, batez ere lehena, ikuskizun aldetik bikain. Unnëa ere gustatu zait, talde moduan fundamentuarekin ikusi ditut eta Scamekoak gazteak baina onak dira. Azken bi talde horiek ibilbide luzea izan dezakete".

BEÑAT ATXA |  
ARRASATE

"Kontzertu oso desberdinak izan dira eta bata bestearen aldean ezin daitezke ipini. Atentzio aldetik, Raul Lasaren *show*-az aparte, Scamekoek eman didate. Saiatu egin dira eta arriskuak hartu dituzte, nahiz eta soinu aldetik azkenean nahi zutena lortu ez. Intentzioa ona zen, hala ere".

AURKEZPENA |  
**JOKIN ZAITEGI SARIA**

## Harol Pinterren 'Maitaleak' lana itzuli du Iñigo Errastik aurten

J. B.

Iñigo Errasti itzultzaileak euskaratu du aurten Jokin Zaitegi sariketarako aukeraturako lana: Nobel saridun Harold Pinterren bost antzezlan. Iaz Jokin Zaitegi itzulpen gintzarako beka irabazi eta urtebete izan du hark Pinterren bost lanek osatutako *Maitaleak* liburua euskaratzeko. Bada, egubakoitzean aurkeztu zuten AEDko arduradunek, Kutxa eta Elkar etxeke ordezkariak, eta dagoeneko salgai dago bilduma Elkarrek berak argitaratuta. Liburuan, idazle ingelesak 40 urtean zehar idatzitako bost antzezlan jasotzen dira, autorearen etapak agertzen dituen, giza harremanetatik hasita gizarte gaiak jorratzen dituen arte.

Aurtengo sariketari dago-kionez, Orham Pamuken *Kar (Elurra)* itzuli beharko du bekaren irabazleak. Partehartzaileek abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dute lehenengo atalaren itzulpena AEDko egoitzan.



Unai Bergaretxe eta Inigo Errasti.



UBANE MADERA

Arrasateko talde batek lan hori ekoiztu eta antzezten duen lehen aldia da. Goiko irudian entsegu bateko unea.

ANTZERKIA | **'ACTTO PARA LA NOCHE BUENA'**

## Hego Euskal Herriko euskarazko lehenengo antzezlan taularatuko du Doke taldeak

*Arrasaten  
hilaren 16 eta  
17an egingo  
dute; Aramaion,  
berriz, 23an*

Monika Belastegi

Hego Euskal Herrian ezagututako euskarazko lehen antzerki obra taularatuko du Arrasateko Doke antzerki taldeak Arrasaten eta Aramaion. Pedro Ignacio de Barrutia aramaioarrak XVIII. mendean idatzitako *Actto para la Noche Buena*, hain justu ere.

XVIII. mendean idatzitako obra izanik, eguneko baldintzara egokitu dute, bai egileak erabilitako euskarari dagokio-

nez zein islatzen dituen zenbait pertsonaiaren karakterizazioari dagokionez. Hala ere, ez du originalaren xarmarik galdu; Barrutia oso egile modernoa izan zen bere garairako eta orduko antzerki teknikak ezagutzen zituen. Hala, eta obraren egiturari esker, Doke taldearen emaitzan gaurkotatzen eutsi ahal izan diote.

**HERRITARREK ANTZEZTEKO**  
Josemari Velez de Mendizabalek -testuaren moldatzailea- azal-

duetako moduan, Barrutia Arrasateko eskribaua zen eta badirudi zaletasunak bultzatuta idatzi zuela antzezlan. Gainera, Arrasaten antzezteko sortu zuen, baina inoiz taularatu ote zen ezin izan dute jakin. Aurreko mendean birritan aurkeztu zen, baina oraingo hau da Arrasateko talde batek berezko ekoizpenarekin egingo duen lehen antzezpena. Jesusen jaiotzarekin herri oroimenean erlazionatutako pertsonaiei bere garaiko arrasatear

**Arrasaten  
antzezteko sortu  
zuen Barrutiak,  
XVIII. mendean**

**Euskara eta zenbait  
pertsonaiaren  
karakterizazioa  
gaurkotu dituzte**

### Fitxa teknikoa

- **Egilea**  
Pedro Ignacio de Barrutia (Aramaio 1682-Arrasate 1759).
- **Testuaren moldaketa**  
Josemari Velez de Mendizabal.
- **Zuzendaria**  
Itziar Rekalde.
- **Musika egilea**  
Sabin Salaberri.
- **Musika zuzendaria**  
Iñaki Maidagan.
- **Musikariak**  
Aba Ansola, Juan Karlos Martin, Gorka Muxika, Alberto Iriodo eta Iñaki Maidagan.
- **Grabazio estudioak**  
Shot.
- **Argiztapena**  
Fernando Martinez de Heredia.
- **Kartelaren diseinatzailea**  
Eneritz Tirados.
- **Abesbatza laguntzailea**  
Goikobalu.
- **Produktzioa**  
Doke antzerki taldea.
- **Antzezeleak**  
Maria Asun Pagoaga, Marixabel Arsuaga, Joxe Eugenio Otadui, Josu Jauregi, Arantza Ezkurra, Marga Mercader, Eugenio Etxebeste, Mikel Ezkurra, Elena Velez de Mendizabal, Mikel Irastortza, Saioa Iturbe, Igor Fernandez, Itziar Rosado, Mikel Dominguez eta Josemari Velez de Mendizabal.
- **Ekoizpenean**  
Aitor Zabalo, Eusebio Iñarra, Mari Jose Unzueta eta Jexux Mari Artze.

batzuk gehitu zizkion Pedro Ignacio de Barrutiak. Horren haritik ere, gaur egungo ikuspegia eman diote antzezlan berriari.

Arrasaten eta Aramaion antzeztuko dute lana. Arrasaten hilaren 16an (20:00) eta 17an (19:00), Amaia antzokian, eta sarrerak hilaren 11tik aurrera egongo dira salgai; Aramaion hilaren 23an egingo dute emanaldia, 20:00etan, kultura etxean.



BETAGARRI | **'HAMAIIKA GARA' LAN BERRIA AURKEZTU ZUTEN**

Betagarrikoak izan ziren Arrasateko 3.60 aretoan egubakoitzean. Ska erritmoekin kale-ratu berri duten *Hamaika gara* lana aurkeztu zuten. Euskaraz bai, baina baita katalanez eta gaztelaniaz ere abestu zuten gasteiztarrek. Izan ere, urte asko daramatza ska taldeak Hego Euskal Herriko zein kanpoko oholtzetan jendea dantzazten, eta egubakoitzea ere erritmoz jositako emanaldia izan zen. Diskoz disko geroago eta talde finkatuagoa da Betagarri, eta hori erakutsi zuten Arrasaten ere. | A.G.



ANJE DUHALDE | **DISKOA AURKEZTU ZUEN ESKORIATZAN**

*Sorminetan* lana aurkeztu zuen egubakoitzean Eskoriatzako kiroldegian Anje Duhalde bakarlarri lapurtarrak. Kantu ederrak, sendoak eta emozioz beteak eskaini zituen Duhaldek Eskoriatzan. Oholtzaren gainean bere seme Txominen eta beste bi kideren laguntza izan zuen, eta, disko berriko 13 kantuez gain, bere betiko abestiak entzuteko aukera ere izan genuen Eskoriatzara hurreratutakook: *Eperra*, *Bakezaleak* eta *Amnistiaren dema*, besteak beste. Adin tarte guztietako jendea izan zen emanaldian. | A.G.



'LA REVELACIÓŃ' | JAZARPENA ETA ZENTSURA JASATEN DUEN ARTISTA DA BASSI

# Lan gogorra eta zirikatzailea arrazionalismoa aldarrikatzeke

*Espaloia jendez lepo egon zen zapatuan Bassiren azken 'probokazioa' ikusteko*

Naiara Larrañaga

Goraino bete zen zapatuan Elgetako Kafe Antzokia Leo Bassi bufoiaren obra berria ikusteko. Luze jardun zuen, baina gustura. Izan ere, hasiera baten ordu pare bat irautekoa zen obrak bi ordu eta hiru laurden iraun zuen. Edozelan ere, inork ere ez zuen bere jarlekua laga. Bufoiak ikuskizun interesgarria eta bikaina egin zuen.

Obra gogorra da Bassiren *La revelación*. Probokazioz beteta dago, erlijio monoteisten aurka eta arrazionalismoa aldarrikatzeke idatzitako lana da-eta. Eliza ez da oso leku onean geratzen, baina ikusleek ondo hartu zituzten Bassiren probokazioak. Arrazionalismo eta agnostizismoaren aldeko borroka horretan, Bassik hizketaldi luzea egin du. Hasieran Aita Santuaren papera egiten du, baina gero

mozorroa erantzi eta hitzaldi luzeari ekiten dio. Laguntzaile moduan herritar bi igo zituen gainera oholtzara. Ia hiru ordu luzeren ostean, bukaera bitxia ere izan zuen obrak: bere bufoi izaera aldarrikatu eta Bassik mirarrietan ez sinesteko dei egin zuen. Horretarako piano bat hantekin birarazi eta bere lana justifikatu zuen, esanez eguneroko lanarekin lortzen dela guztia eta mirariak gezurra direla, hain zuzen ere.

## ERREKONOZIMENDUA

Zentsura eta jazarpena pairatzen dabilen artista da Bassi. Haren lanek eta probokazioek gizarte-ko sektore kontserbadore eta elizkoiak haserrarazi ditu azkenaldian, eta joandako martxoan bonba bat ipini zioten Madrilgo Alfil antzokiko kamerinoan. Hori dela eta, errekonozimendu txiki bat egin zioten zapatuan Espa-



JOSETXO ARANTZABAL

Josu de Vega Espaloiko kidearen eskutik plaka oroigarria jaso zuen Bassik, elkartasun adierazgarri gisa.

loikoeak. Plaka bat eman zioten adierazpen askatasuna ematen den guneen defentsan, Espaloia Kafe Antzokiaren izenean. Aipatutako Alfil antzokiarekin harre-

man estua daukate Espaloikoeak eta omenaldi xume horrekin artistari babesa eta elkartasuna eskaini gura izan zioten zapatuan, sufritzen duen zentsura-

rengatik. Hain zuzen ere, zapatuan bertan jakin zuen Bassik Santanderren egitekoa zen saioa babesleen presioarengatik bertan behera geratu dela.

Abenduaren 4a:  
110. zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

## Sariak astero!

Astlehenean, abenduak 4, sari horiek izen-abizenak izango dituzte.  
Eta zeu izan zaitezke saridunetako bat!

109. zozketako saridunak	ETXEKO TXIKIENDAKO SARIAK	Baldintzak		
<p><b>PAMIELA</b> argitaletzeko liburu sorta bat)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Alaitz Perez de Arenaza (Arrasate)</li> </ul> <p><b>Gonbidapen bat Donostiako AQUARIUMa</b> bisitatzeko. (Saridunari bi emango zaizkio).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elena Txintxurreta Igartua (Oñati)</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Astleheneko Goienkaria</i>-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.</li> <li>• Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.</li> </ul>		
<p style="background-color: #333; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">110. zozketako sariak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zortzi sarrera abenduaren 15ean, <b>ELGETAKO ESPALOIAN, DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAREN</b> barruan izango den kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)</li> </ul>	<p style="font-size: 0.8em; font-weight: bold;">Umeentzako joko dibertigarriak eskuratu nahi badituzu, txartela bete eta sarien zozketan sartuko zara.</p> <p style="font-size: 0.7em;">Irabazleen izenak abenduaren 18ko <i>Astleheneko Goienkaria</i>-n argitaratuko dira.</p> <table style="width: 100%; font-size: 0.7em;"> <tr> <td style="width: 50%;"> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Izen-abizenak: .....</li> <li>• Umearen adina .....</li> <li>• Telefonoa .....</li> <li>• Helbidea .....</li> <li>• Herria .....</li> </ul> </td> <td style="width: 50%;"> <p style="font-weight: bold;">Baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nahiz beste txartel bidali ahal izango dira.</li> <li>• Txartelak jasotzeko azken eguna: abenduak 13.</li> <li>• Ez da fotokopiarik onartuko.</li> </ul> </td> </tr> </table> <p style="font-size: 0.6em; text-align: center;">Txartela eraman dezakezu herri bakoitzeko egoitzara edo bidali 132 posta-kutxara (20500) Arrasate</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izen-abizenak: .....</li> <li>• Umearen adina .....</li> <li>• Telefonoa .....</li> <li>• Helbidea .....</li> <li>• Herria .....</li> </ul>	<p style="font-weight: bold;">Baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nahiz beste txartel bidali ahal izango dira.</li> <li>• Txartelak jasotzeko azken eguna: abenduak 13.</li> <li>• Ez da fotokopiarik onartuko.</li> </ul>	<p style="background-color: #333; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">Harpidedun egiteko:</p> <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold; text-align: center;">902-36 38 51</p> <p style="font-size: 0.8em; text-align: center;">09:00etatik 18:30era.</p> <p style="background-color: #333; color: white; padding: 5px; font-weight: bold;">Harpidetza kuota:</p> <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold; text-align: center;">5 euro</p> <p style="text-align: center;">2006 bukaera arte</p> <p style="text-align: center; font-weight: bold; font-size: 1.5em;">Goienkaria</p> <p style="font-size: 0.7em; text-align: center;">astelehenean, aste bukaera osoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izen-abizenak: .....</li> <li>• Umearen adina .....</li> <li>• Telefonoa .....</li> <li>• Helbidea .....</li> <li>• Herria .....</li> </ul>	<p style="font-weight: bold;">Baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nahiz beste txartel bidali ahal izango dira.</li> <li>• Txartelak jasotzeko azken eguna: abenduak 13.</li> <li>• Ez da fotokopiarik onartuko.</li> </ul>			

Gizabidea Fundazioak gonbidatuta etorri da Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951) Debagoienara. *Euskal hiria*-z berba egin die hemengo hainbat ikasleri. Teoria horrek

hartu duen oihartzunaz eta liburuak idazteko notak non hartzen dituen galdetu diogu guk, besteak beste. Irratizalea dela aitortu digu Atxagak, eta asko entzuten

duela. Bi egunkari erosten ditu egunero, eta asteburuan guztiak irakurtzen ditu. Ruper Ordorikaren azken diskoa entzuten etorri da Gasteiztik Arrasatera.

**BERNARDO ATXAGA** | IDAZLEA

# "Fede onez egiten diren erabilera guztiak onak direla uste dut"

Oihana Elortza

**Euskal hiria-ren teoriak politikara ere egin du salto. Nabaritu duzu gauzak aldatu egin direla?**

Ezinbestekoa da hori; izan ere, ideia bat sortzen denean, eragileak politikoko dira eta haiek hartzen dute ideia hori dagokien tokitik. Niri dagokit pixka bat zehaztea zer esan nahi dudana *Euskal hiria* esaten dudanean, zer den izen hori.

Eta iruditzen zait Arrasate toki egokia dela hori egiteko. Jose Maria Arizmendiari heriotzaren urteurrenarek ekarri nau hona. Gizon hark ere utopia bat zuen eta mantendu eta gauzatu egin zuen. Nik ere *Euskal hiria* esparru utopikoan kokatzen dut, tarreak tarre.

**Baduzu inpresioa hainbatek erabili dutela zure ideia hori proiektuetarako? Adibidez: euro-hiria, AHT proiektua...**

Jakina. Adibidez, Abiadura Handiko Trenaz, errepideez edo, nolabait, garapen bortitz baten irudi bezala. Ez dut esaten zilegi ez denik; ideia hor dago eta jendeak ematen dio nahi duen edukia. Baina erabat zuzena ez izateko, sekulako txorakeriak ere irakurri ditut. Duela gutxi, adibidez, bilera baten geunden emaztea eta biok eta ekologista bat ari zen hizketan; *estrellita castro* horietako bat zen. Bat-batean, altxatu zen hizketan ari zen pertsona hori eta atzamarra niri zuzenduz hasi zen esaten: "Batzuek nahi dute...". Bazirudien enpresa toxiko bat jarri nahi nuela. Horrelako jendea ere jasan behar da, horregatik ezin duzu kartzelara bidali.

Fede onez egindako erabilera guztiak onak direla uste dut, nahiz eta ez egin zuk pentsatzen duzun modu baten. Fede onez eta txorakeriarik gabe ondo dago, baina txarra da txoroak txorakeria egin nahi duenean zure kontura. Nik ez ditut maite txoroak, batere ez, gainera.

**Gero eta konpromiso gehiago dituzu agendan?**

Nire agenda da nire etsairik handiena momentu honetan. Oraingo idazlea eta lehengoa erabat ezberdinak dira. Gaur egun, hegazkinari beldur dion idazle bat oso egoera txarrean dago.

**Toki askotan egon zara zu. Ze inpresio izaten duzu zure liburua beste hizkuntza baten saltzen dabiltzala ikusita?**

Aurreneko erreakzioa da: hemen badaude 30.000 liburu eta zer egiten dute beste 29.999 liburu horiek? Baina normalean, bilatu egin behar duzu zure liburua. Hala ere, batxilergoan errebalida gainditu nuenean hartu nuen poza errepikatzen zait horrelako lorpenak ikusita.

**Nolakoa da zure lantokia?**

Agendarekin haserre nagoen sasoiaren nire gela ezin da ikusi ere egin: apaletan baino ia paper gehiago egoten dira lurrean. Orduan ikusten dut ezin dudala kaos horretan bizi, eta bi egun hartzen ditut dena txukuntzeko. Balkoi bat, bi leiho eta bi mahai ditut. Zuhaitz luze bat, kanposantuko etxea, zaldiak eta lursail bat ikusten dut. Eta hemengo mendiak ere ikusten ditut ia, baina beste aldetik. Nire mahai nagusian 300 item baino gehiago egongo dira.

"Txarra da txoroak txorakeriak egin nahi dituen zure kontura; nik ez ditut txoroak maite"

"Zer lan dudana esku artean, horren arabera pentsatzen dut norendako idatzi"



Equaztanean egon zen Bernardo Atxaga Arrasaten, Gizabidea Fundazioak gonbidatuta.

XABIER URZELAI

**Non hartzen dituzu apunteak?**

Orain modan dagoen koaderno mota bat erabiltzen dute idazle askok eta baita nik ere, oso praktikoa da-eta. *Moleskine* koaderno mota da hori; azal gogorra dute, ondo irekitzen dira eta goma batekin ixten dira. Liburuak eta

"Hegazkinari beldurra dion idazle bat oso egoera txarrean dago gaur egun"

"Garapen bortitz baten irudi bezala hartu izan dute askotan 'Euskal hiria'-ren teoria"

horrelako koadernoak, adibidez, beti sartzen ditut maletetan. Irakurketan erabili behar ditudan paperak bikoiztuta eramaten ditut, batzuk maletan eta beste batzuk soinean.

**Zergatik utzi zenuen banketxeko lana egun batetik bestera?**

Ekonomia ikasketak egin nituen, Bilbon, baina lana ez zitzaidan gustatzen. Egundaren baten, Donostiara joan beharrean Uzta-ritzera joan nintzen eta handik deitu nien esateko ez nintzela gehiago lanera joango. Nire benetako ikasketak dira filosofiakoak, Bartzelonan egin nituenak.

**Norendako idazten duzu?**

Ze lan dudana esku artean, horren arabera. Baina gauza batzuk automatizatuta dituzu, gidari bezala. Haiek ez dute pentsatzen ezkerrean edo esku-mara hartu behar duten, eta nik ere antzera batzuetan.

**Egiten diezu kasurik jendearen iritziei, kritikei?**

Nik oso bizitza sozial txikia egiten dut. Esan liteke ez naizela inora joaten. Guraso naiz eta guraso naizen aldetik bai, pailazoak ikustera joan naiz eta joango naiz, baina bestela oso gutxi ateratzen naiz. Badituz nire lagunak, eta eurekin egoten naiz batzuetan, lagunartean.

**Zer ikusten duzu telebistan?**

12 urte nituela ikusi nuen lehen aldiz. *The saint* botatzen zuten orduan eta gogoratzen naiz Roger Moore aktoreak hiruzpatalu neska zituela inguruan. Irakurtzeko orduak kentzen dizkit eta gutxi ikusten dut, nahiago dudalako irakurtzea.

**Irratia nahiago?**

Bai, oso irratizalea naiz, asko entzuten dut. Asko gustatzen zait jendea berba egiten entzutea eta eztula egiten badu norbaitek edo zerbait oker esaten badu, eztula entzutea eta oker egin duela esaten entzutea. Uste dut irratian hori egiten dutela orain.

## Alfontso Ugarteren omenezko ekintzak eta beka aurkezpena

*Alfontso Ugarte Antzuolako musikariaren gaineko ekitaldiak egingo dituzte bere jaioterrian abenduaren 15ean*

Leire Kortabarria

Alfontso Ugarte musikari antzuolarra omenduko dute jaioterrian abenduaren 15ean, eguaztena, haren izena darman proiektua aurkeztuta.

Ekitaldietako bat izango da Ugarteren bizitza eta lana aztertzeko eta katalogatzeko bekaren azalpena. Izan ere, bekara aurkezteko epea zabalik dago, eta lana egin nahi dutenek Udala Kulturaz Zerbitzuan entregatu behar dute dokumentazioa egunotan. Eusko Ikaskuntzak deitzen du beka, eta litekeena da abenduaren 15erako dagoeneko jakitea zeinek irabazi duen; eta horrela bada, ekitaldian esango dute.

### ERAKUSKETA ETA MUSIKA

Ugarteri omenaldia Orlaran aretoan izango da, 19:00etan. Antzuola eta Lizarrako udalek, Eusko Ikaskuntzak eta Udalbidek antolatzen dute, eta honako ekintzak izango dira: bate-tik, Alfontso Ugarteren senitartek batek, Igor Nabaskues musikologoak, hitzaldia egingo du; musikari antzuolarraren gaineko erakusketa irekiko dute, argazki, partitura eta Ugarteren objektu pertsonalekin; Antzuolako abesbatzak Ugarteren Gabon kantuak abestuko ditu; eta Xabier Imanol Muñoz txistulariak Ugarteren obrak joko ditu. Abenduaren 15ean izango da hori guztia.

### 70. URTEURRENA

Alfontso Ugarte omentzeko ekintza gehiago izango dira hemendik eta maiatzera arte; izan ere, hil horretan beteko dira hil zenetik 70 urte.

Antzuolan jaio zen Ugarte 1879. urtean. 1901ean, Lizarran lana topatu zuen, parrokiako organo-jole moduan, eta han geratu zen. Pieza asko konposatu zituen, gehienak erlijiosoa.

### Hitzorduek



**MISSISSIPPI MASS CHOIR TALDEAK GOSPEL EMANALDIA EGINGO DU |**  
Arrasaten abestuko dute hilaren 23an, eta sarrerak erosteko aukera dago Servikutxan

laz bezala, aurtengo Gabonetan ere AEBetako doinu espiritualak izango ditugu gurean: gospel doinuak, beltzek abestuta. Hain zuzen, Mississippi Mass Choir taldeak emanaldia egingo du abenduaren 23an Amaia antzokian. Sarrerak salgai daude Servikutxa kutxazainetan.

Mississippi estatuko Jackson hiritik dator abesbatza hori, eta mundu osoan ibili da Jainkoaren ganako maitasun eta laudoriozko musika abesten. Oraingoan, *Singing Gospel Christmas* ikuskizuna aurkeztuko dute, eta abesti guzti-guztiak berriak izango dira.

### Labur

## Durangoko azokara irteera eta film emanaldia antolatu ditu Atxagaztek

Aretxabaletako Atxagazte gaztelekuak bi kultura ekintza antolatu ditu datozen egunotarako: batetik, hilaren 9an, zapatua, Durangoko Liburu eta Disko Azokara joango dira. Irteera gaztelekuetik egingo dute; bestetik, domekan, hilaren 10ean, gazteendako zinema emanaldia izango da gaztelekuan, 18:00etan.

Ekintza horiek II. Atxagazteko Gazte Astearen aurrekaria izango dira. Kultura aste hori abenduaren 26tik 30era egingo dute, eta argazki lehiaketa, izotz pistara irteera... izango dituzte.

## Elkartasun erakusketa eta salmenta egingo dute Arrasateko artistek

Arrasateko artea munduari lagunduaz izenarekin, Arrasateko artistek euren lanen erakusketa eta salmenta antolatu dute, elkartasuna helburu dutela. Monterrongo erakusketa aretoan dago erakusketa zabalik honako ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Bestetik, Harresi aretoan Teresa Iraolak akuarelak eskegi ditu. Hilaren 17ra arte dago zabalik, astegunetan 18:00-20:00 eta zapatu eta jaiegunetan, gainera, 12:00-14:00 ordutegian.

## Gabonetako marrazki lehiaketak daude Bergaran eta Eskoriatzan

Bi marrazki lehiaketa daude zabalik egunotan, bata Bergarako umeendako eta bestea Eskoriatza eta Leintz Gatzagakoendako.

Bergaran Jardun elkarteak VI. Olentzero marrazki lehiaketa deitu du. Herriko LHko eta DBHko ikasle guztiek parte har dezakete. Abenduaren 18an banatuko dituzte sariak.

Bestetik, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan Gabonetako marrazkiak egitea eskatzen diete 6-12 urte bitarteko umei. Ludotekan edo kultura etxean entregatu behar dira lanak.

### ZINEMA I

• **Bienvenido a casa** filma emango dute Oñatin Eguenean, hilak 7, emango dute film hori zineklub emanaldian, kultura etxean, 20:00etan.

• **Vickie bikingoaren abenturak** filma Antzuolan Bereziki umei zuzendutako *Vickie bikingoaren abenturak* filma emango dute domekan, hilak 10, Orlaran aretoan, 16:30ean.

• **Nanny McPhee** filma emango dute Aramaian Nanny McPhee izeneko filma emango dute domekan, hilak 10, liburutegian, 17:00etan. Bereziki, umeek ikusteko modukoa da.

### IKUSKIZUNAK I

• **Dantza garaikide-poesia-kontakt emanaldia** Dantza garaikidea, poesia eta kontakta batzen dituen emanaldia egingo dute Naiara Iñiguez gasteiztarrek eta Olaff Kehler bilbotarrak Aretxabaletako udaletxe zaharrean. Abenduaren 15ean izango da 20:30ean, eta Aretxabaletako Jaiki elkarteak antolatzen du.

### MUSIKA I

• **Kataluniako abesbatza bat Aretxabaletan** San Vicente del Raspeig-eko La Aurora abesbatzak ema-

naldia egingo du egubakoitzean, hilak 8, elizan, 20:00etan. Besteak beste, Mozart, Berletti, Serrat, Moreno Buendia eta beste batzuen piezak abestuko dituzte.

### ERAKUSKETAK I

• **Iñigo Arregi arrasatearrak eskultura erakusketa dauka** Iñigo Arregi artista arrasatearrak altzairuzko 14 eskultura-lan ipini ditu erakusketan Gasteizko Felisa Navarro erakusketa aretoan. Eskulturak bakarrik erakusten dituen lehen aldia da. Cercas Bajas kaleko 2. zenbakian dago areto hori.

### MUSIKA I

• **AHTren aurkako kontzertua izango da egunean** Abiadura Handiko Trenaren aurkako kontzertua izango da hilaren 7an, eguena, Bergarako gaztetxean, 22:30ean. Torrelavegako Storms to Come eta Madrilgo Moloko Plus taldeek joko dute.

• **Oñati bizirik punk-rock jaialdia Arrasaten** Oñati bizirik delako punk-rock jaialdia egingo dute Arrasateko gaztetxean honako Oñatiko taldeek: Triskantza, Drakes, Kontralei, Los vagueza crónica, Krimen eta Sospechos.o.s. Zapatuan, hilak 9, joko dute, 19:00etan.

### • Rafa Rueda eta Unnëaren kontzertua Oñatin

Rafa Rueda bakarlarriak *Saredun eskua* diskoa aurkeztuko du kontzertuan hilaren 16an, zapatua, Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean. Sarrera 5 euro kostatuko da.

### LEHIAKETAK I

• **XV. Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartzeko** Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak. 1992an edo lehenago jaio-tako edozeinek parte har dezake. 450, 240, 150 eta 100 euroko sari bana emango dute. Lanak bidaltzeko mugaeguna urtarriaren 7a da. Horrez gain, urtarriean, amodiozko SMS bidezko mezuen lehiaketa zabalduko dute. Argibide gehiago honako webgunean izango dituzue: [www.jardun.net](http://www.jardun.net).

• **Orhan Pamuk turkiarraren nobela bat itzultzeko beka** Orhan Pamuk aurtengo Literaturako Nobel saridunaren *Kar* nobela euskarara itzultzeko Jokin Zaitegi beka deitu dute AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak. Irabazleak 9.000 euro jasoko ditu liburua itzultzeko. Oinarriak eta itzultzeko testua honako webgunean aurkituko dituzue: [www.elkarlanean.com/jokin-zaitegi](http://www.elkarlanean.com/jokin-zaitegi).

**Eguraldia**



**Frontea hurreratuko da bihar eta hotza eta euria ekarriko ditu**

Hegoaldeko haizea pixka bat biziago ibiliko da gaur, baina epelago etorriko da eta horrek tenperatura pixka bat igoko du. Osterantzean, ateri izango dugu eguna, nahiz eta oso lainotuta egongo den. Bihar, berriz, erruz egingo du euria: fronte bat hurreratuko da eta hodeiak ugartzen joango dira. Arratsalde-

an egingo du euria eta hoztu ere egingo du, nabarmen. Eguaztenean euri gutxiago egingo du, baina tenperaturak beherako bidean jarraituko du.

Eguen eta egubakoitzerako, zertxobait igoko da tenperatura, eta euria egingo duen arren, aurreko egunetan baino gutxiago izango da.

**Guardiako farmaziak**

**ARRASATE**

<b>Astelehena, 4</b>	Morales	Araba etorbidea 14 (943 79 18 65)
<b>Martitzena, 5</b>	Ruiz Perez	Maalako Arrabala 31 (943 79 14 09)
<b>Eguaztena, 6</b>	Zabala	Zaruqalde 42 (943 77 16 30)
<b>Eguena, 7</b>	Azkoaga	Ferrerias 1 (943 79 15 15)
<b>Egubakoitza, 8</b>	Azkoaga	Iturriotz 17 (943 79 79 99)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 4</b>	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)
<b>Martitzena, 5</b>	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)
<b>Eguaztena, 6</b>	Urriticoechea	Oxirondo 4 (943 76 11 74)
<b>Eguena, 7</b>	Zabala	Barrenkalea 25 (943 76 16 87)
<b>Egubakoitza, 8</b>	Guallar	San Antonio 5 (943 76 11 05)

**OÑATI**

<b>Astelehena, 4</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 01 22)
<b>Martitzena, 5</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 01 22)
<b>Eguaztena, 6</b>	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
<b>Eguena, 7</b>	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
<b>Egubakoitza, 8</b>	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)

**ARETXABALETA**

<b>Astelehena, 4</b>	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
<b>Martitzena, 5</b>	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
<b>Eguaztena, 6</b>	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
<b>Eguena, 7</b>	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)
<b>Egubakoitza, 8</b>	Iturralde	Belorrieta 1 (943 08 11 43)

**Telefono jakingarriak**



**OSASUNA / LARRIALDIK**

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutzte Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
<b>Osasun Etxeak</b>	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
<b>Udaltzaingoak</b>	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
<b>Taxiak</b>	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hilttegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
<b>Euskara Taldeak</b>	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Txirritola / Aram.	945 44 52 66
<b>Hondakindegia Alternatiboak</b>	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

<b>Kiroldegiak</b>	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

<b>Kultura Etxeak</b>	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

<b>Udalak</b>	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

**Zozketak**

**BONOLOTOA**

Astelehena, 27  
**3 • 13 • 30 • 37 • 42 • 43**

Osagarria: 27 | Itzulketa: 1

Martitzena, 28  
**6 • 24 • 26 • 35 • 39 • 44**

Osagarria: 12 | Itzulketa: 1

Eguaztena, 29  
**10 • 15 • 34 • 39 • 41 • 46**

Osagarria: 25 | Itzulketa: 5

Egubakoitza, 1  
**10 • 14 • 20 • 24 • 28 • 34**

Osagarria: 3 | Itzulketa: 5

**ONCE**

Astelehena, 27 **90.618**

Martitzena, 28 **00.838**

Eguaztena, 29 **94.936**

Eguena, 30 **09.279**

Egubakoitza, 1 **36.899**

Kupoitzarra (029 seriea)

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 30

**1 • 5 • 10 • 17 • 31 • 37**

Osagarria: 42 | Itzulketa: 5

Zapatua, 2

**20 • 27 • 32 • 38 • 41 • 42**

Osagarria: 16 | Itzulketa: 2

**Gazte zerbitzuak**

**LANA |**

• **Liburuzaina, erizaina, erizain laguntzailea, delineaizailea, bi udaltzain eta arotza.**

Informazio zabalagoa [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org).

Epea: abenduak 4.

• **Erizaintza.** Arrasateko

Udalaren Iturbide

egoitzarako erizaintza

diplomatu bat

kontratatzeko oposizio-

lehiaketa. Epea:

abenduak 4.

• **Begiraleak Gabonetako**

parkean lan egiteko.

Urtarrilaren 2tik 5era egingo

den haur parkean lan egiteko

begiraleak behar ditu

Txatxilipurdik. Interesatuok

curriculum bidali abenduaren

15a baino lehen

[kultura@txatxilipurdi.com](mailto:kultura@txatxilipurdi.com)

helbidera edo deitu: 943-79 54 46.

• **Bost irakasle.** Andoaingo

Udala. Musikako bost irakasle. Epea: abenduak 12.

• **Kirol teknikaria.** Mutrikuko

Udala. Ingeniari tekniko,

unibertsitateko diplomadun

edo arkitekto tekniko titulua

edo Hirugarren mailako

Lanbide Heziketa edo

baliokidea izatea. 3. hizkuntza

eskakizuna ere behar da.

Epea: abenduak 9.

• **Bake epailea.** Astigarragako

Udalean bake epaile titular bat

eta ordezkoa izateko

eskabideak aurkezteko epea

zabaldu da. Epea: abenduak 11.

**IKASTAROAK |**

• **Txiste grafikoak.**

Hondarribiko Euskarazko

txiste grafikoen XIV.

Lehiaketa. Gaia eta teknika

libreak dira eta euskaraz

idatzitakoa izan behar du.

Epea: abenduak 12.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**

Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65

[gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)

**BERGARAKO GAZTEENDAKO**

**INFORMAZIO GUNEA:**

Kultura etxea. 943 77 91 57

[gzerbitzua@euskalnet.net](mailto:gzerbitzua@euskalnet.net)

**OÑATIKO GAZTEENDAKO**

**INFORMAZIO GUNEA:**

Foruen plaza 4. 943 71 82 57

[gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net)



**Bertan salgai**

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Antzuola:**

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

**Elgeta:**

- Kioskoa

**Bergara:**

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako kioskoa
- Txurrerua kioskoa

**Arrasate:**

- Eroski merkataritza-etxeko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo okindegia
- Kurruko okindegia

**Aretxabaleta:**

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

**Eskoriatza:**

- Dorleta liburu denda

**Leintz Gatzaga:**

- Labidea

**Aramaio:**

- Plazako kioskoa

**Oñati:**

- Haritza kioskoa
- Ibarrondo kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

**Zorion agurrak**



ARRASATE  
**Naroa Alberdi**  
Azaroaren 25ean, 2 urte. Zorionak! Familia guztiaren partetik.



ARRASATE  
**Naroa Fernandez**  
Azaroaren 29an, 4 urte. Zorionak, Sanvi Txikiko lagunaren partetik.



ARRASATE  
**Julene Sarabia**  
Abenduaren 2an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, etxekoaren partetik!



ARRASATE  
**Aitor Madinabeitia**  
Abenduaren 2an, 7 urte. Zorionak, Malen eta Naroaren partetik.



ARRASATE  
**Malen Balerdi**  
Abenduaren 6an, 3 urte. Zorionak! Pablo, Aner, Martin eta Naroa.



BERGARA  
**Juan Luis Gonzalez**  
Abenduaren 3an, 43 urte. Zorionak, aitatxo! Bego, Miren eta Mariñe.



BERGARA  
**Irati Elortza**  
Abenduaren 8an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Mariñe Gonzalez**  
Abenduaren 16an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familian partetik.



OÑATI  
**Amaia Ayesta**  
Azaroaren 28an, 10 urteak. Zorionak! Senarra, Markel eta lagunak.




OÑATI  
**Xabier Barrena**  
Abenduaren 4an, 7 urte. Muxu bat. Zorionak, etxekoaren partetik.



ARAMAIO  
**Eider Ballina**  
Abenduaren 5ean, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, merezi duzu-eta!



ARAMAIO  
**Ander Fernandez**  
Abenduaren 6an, 11 urte. Zorionak, futbolari! Aupa, Ander!



ARAMAIO  
**Izar Elorriza**  
Abenduaren 7an, 12 urte. Zorionak eta muxu bat, etxekoaren partetik.



ESKORIATZA  
**John Lasagabaster**  
Abenduaren 6an, 1 urte. Zorionak, etxeko politena! Familia.



ANTZUOLA  
**Aitziber Iztueta**  
Abenduaren 9an, 26 urte. Zorionak eta urte askotarako! Lagunak.

**Jaiotakoak**



**Alazne Rodriguez Barriocanal**  
Arrasate • 3,240 kg. Azaroaren 28a. Gurasoak: Ima (Arrasate) eta Iban (Arrasate). Argazkian amamarekin.



**Ane Arexolaleibar Uriarte**  
Aramaio • 2,700 kg. Azaroaren 28a. Gurasoak: Saioa (Arrasate) eta Jon (Arrasate). Argazkian amarekin.



**Maddi Delgado Estrella**  
Arrasate • 2,800 kg. Azaroaren 29a. Gurasoak: Rosa (Arrasate) eta Tekila (Arrasate). Argazkian bakarrik.



**Maialen Vaquero Bassecourt**  
Arrasate • 3,030 kg. Azaroaren 29a. Gurasoak: Nekane (Arrasate) eta Josu (Arrasate). Argazkian amarekin.



**Oihana Koskorrotxa Papo**  
Aretxabaleta • 2,970 kg. Azaroaren 30a. Gurasoak: Silvia (Argentina) eta Xabier (Lekeitio). Argazkian haurra kuman.



**Josu Garitano Iparragirre**  
Antzuola • 4,230 kg. Azaroaren 30a. Gurasoak: Miren (Antzuola) eta Gorka (Antzuola). Argazkian amarekin.



**Aitana del Pozo Benitez**  
Arrasate • 3,200 kg. Abenduaren 1a. Gurasoak: Victoria (Extremadura) eta Jose Luis (Extremadura). Argazkian amarekin.



**Mikel Deza Ibarra**  
Bergara • 3,640 kg. Abenduaren 1a. Gurasoak: Itziar (Bergara) eta Jesus (Soraluze). Argazkian umea lo.



**Zoriondu ARRASATE IRRATIAN**  
Ikaskideak, lagunak edo  
senitartekoak zoriondu  
nahi badituzu, **ARRASATE**  
**IRRATIA**k egunero ematen  
dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
*irratia@goiena.com* helbidera  
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tarte  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**  
**ARRASATE IRRATIA**

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:30

**Saharako kanpalekueetatik zuzenean**

Elkarrizketen lehen tartean, Saharako kanpalekuekin egingo dute konexioa. Hantxe dira Nubi elkarteko eta Txantxiku eta Arizmendik ikastoletako ikasle eta irakasleak. Baita Goienako lankide Txomin Madina ere. Han ikusitakoak kontatuko ditu.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

**Bidebarriren ekimen berria: Gozokin**

Udalak eta Caritasek bultzatzen duten Bidebarri enpresak Gozokin arloa jarri du abian: pastak, tarta izoztuak eta artisau eran egindako bonboiak landuko dituzte nagusiki Zubillagan. Orain 10 urte sortu zen Bidebarri da gaurko protagonista.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 11:05

**Bidaia ondo antolatzeko gomendioak**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

**Josu Jon Imazi elkarrizketa**

**Herri Irratia**

FM 99.8

'Loiolako porrusaldan' | 12:05

**Aste bukaerak emandako albisteei gainbegiratu**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 4



**Itxura eta eduki berriak albistegietan**  
14:45, 19:45, 20:45

GOITBko albistegiek itxura berria dute gaurtik. Bailaran gertatutako albistek, Larraitz Zeberio (irudian) eta Goiatz Aranaren eskutik.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Teknopolis.

14:15 Mandio.

14:45 Albisteak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Bizitegia.

16:00 Klip@k.

16:15 Jazzmina.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Berbaire.

18:15 Eltze beroa.

18:45 Albisteak.

19:15 Danbaka.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

20:45 Berriak.

21:15 Harmailatik.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Erreportajea: Etorki(zu)nak.

22:15 Hasiberriak.

22:45 Berriak.

23:15 Didjeridu.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Ikusmira.

00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 5



**'Danbaka' musika lehiaketa: Jim TNT**  
21:47

Danbaka musika lehiaketarekin jarraituz, Jim TNT arrasatearrak Espaloian egubakoitzean egin zuen emanaldia ikusteko aukera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Harmailatik.

14:15 Erreportajea: Etorki(zu)nak.

14:45 Albisteak.

15:00 Didjeridu.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Hasiberriak.

16:15 Ikusmira.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Harmailatik.

18:15 Ilunpean.

18:15 Bizitegia.

18:30 Klip@k.

18:45 Albisteak.

19:15 Harmailatik.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.

20:45 Berriak.

21:15 Berbaire.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Danbaka: Jim TNT.

22:15 16mm.

22:45 Berriak.


23:15 Mandio.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Harmailatik.

00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 6



**Euskararen eguna: saio berezia**  
21:15

*Euskaraz bizi, is beri isi* lelopean, ibarreko euskalgintza arloko eragileek antolatutako ekitaldietako irudiak eta iritziak jasoko dituzte saio berezi horretan.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire.

14:15 Danbaka: Jim TNT.

14:45 Albisteak.

15:15 16mm.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Hasiberriak.

16:15 Mandio.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Harmailatik.

18:15 Erreportajea: Etorki(zu)nak.

18:45 Albisteak.

19:15 Danbaka.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

20:45 Berriak.

21:15 Euskararen eguna.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Desfilea.

22:15 Hasiberriak.

22:45 Berriak.


23:15 Berbaire.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Erreportajea.

00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 7



**Gaurkotasuneko gaiak 'Berbaire' saioan**  
21:15

Gaurko tertulia saioan, Ander Rodriguez, Andoni Gartzia, Aitor Arantzabal eta Iñaki Galdos izango dira Gorka Etxaberen solaskideak.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Euskararen eguna.

14:15 Desfilea.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Teknopolis.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Erreportajea.

16:15 Ikusmira.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Eltze beroa.

18:15 16mm.

18:45 Albisteak.

19:15 Bizitegia.

19:30 Klip@k.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.

20:45 Berriak.

21:15 Berbaire.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Danbaka: Raul Lasa.

22:15 Didjeridu.

22:45 Berriak.


23:15 Erreportajea.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Ilunpean.

00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 8



**Bernardo Atxagari elkarrizketa**  
22:15

Bernardo Atxaga izango da gaurko gonbidatua *Ilunpean* saioan. Obabako kontuen eta bestelakoen gainean galdetuko dio Oihana Elortzak.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire II.

14:15 Danbaka: Yotox.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:15 Eltze beroa.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Didjeridu.

16:15 Hitz bitan.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Debarri: Leintz Gatzaga.

18:15 Debarri: Leintz Gatzaga.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:15 Erreportaia. Oiduko txabola berritzen.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

20:45 Berriak.

21:15 Teknopolis.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Mandio.

22:15 Ilunpean.

22:45 Berriak.

23:15 Berbaire II.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Jazzmina.

00:15 Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**



**"Nik oraindik pentsatzen dut jende bokazioduna badela, baina gizarte honetan ez da erraza apaiz izatea"**

JUAN KRUZ MENDIZABAL | BERGARAKO SANTA MARINAKO PARROKOA  
Berriak, 2006-11-28



**"Mairuaren Alardearen inguruko ikerketa eskatu diogu Eusko Ikaskuntzari, etorkinen sentsibilitatea ez mintzeko"**

JOSE LUIS KORTABARRIA | MAIRUAREN ALARDEAREN ELKARTEKOA  
Berriak, 2006-11-29

**Erreportajea**

**'Etorki(zu)na'**

Etorkizun hobearen bila gurera iritsitako etorkinen gaineko saioa

Gaur, astelehena, 21:45ean

**Goitb**  
Goiena Telebista  
*Ikustekoa!*





# IKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48  
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**FAGOR** 



**INALECTRIK**  
ARETXABAETA

**LITTLE LITTLE MUCH**  
ARRASATE

**THE 5 TWISTERS**  
ARRASATE

**ANAL BAG**  
ARRASATE

**5. KONTZERTUA**  
**ABENDUAK**  
**15**  
Egubakoitza | 22:30  
Elgetako Kafe Antzokia

**KAMISETAK SALGAI!**

**INFORMAZIO + [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)**



## Hamarrekoa

LEO BASSI | BUFOIA

### “Diktadoreek eta monoteistek ez dute komikotasuna onartzen; ez da kasualitatea”

Jon Berezibar

**1. Jainkoa existitu edo ez, ergelkeriara gaude kondenuatuak?** Mojak errezatzen eskaneatu dituzte eta garuneko eremu bat aktibatzen dela ikusi dute. Barre egitean ere oso gertuko puntu bat aktibatzen da. Federekin zein barrearekin esperantzari zabaltzen dizkioguta eta atek.

**2. Preserbatibo bat kontsagratzen duzu lan berrian. Fundamentalismoez babestuko gaituen kondoirik badago?** Totalitarismo mota guztien aurkako antidotoa, ze monoteismoa totalitarismo mota bat baita, barrea da. Diktadoreek eta fededunek ez dute komikotasuna onartzen.

**3. Hala ere, esaten dute zientzialari guztiek azkenean Jainkoarengana jotzen dutela erantzun bila.** Zientzia kontzeptu jainkotiarren aurka borrokan garatu ahal izan da. Kontraesan absolutua da baiez-tapen hori.

**4. Eta bufoiak zerengana jotzen du?** Arrazionalitate. Txantxak ez dira kasualitatez sortzen, asmatu egin behar dira. Irririk profanoena ere pentsatu egin behar

da. Jendeak uste du bufoia ez dela arrazionala, baina eroa izateko oso arrazionala izan beharra dago.

**5. Gaur egun hil baino lehenago kondenatzen dira bufoiak infernura?** Botereari gustatzen ez zaion txiste batekin heriotza aurki zezaketen bufoiak. Orain dela 10 hila-bete bonba bat ipini zidaten niri Madrilen. Gauzak ez dira askorik aldatu milurtekotan.

**6. Zer esango duzu azken judizioan?** Planeta baten gaude, eguzki sistemaren barruan, beste ehun milioi sistemaren artean. Milaka milioi galaxia daude. Arduratuko da hori guztia sortu duen Jainko bat planeta ñimiño baten nik egindako txiste batengatik?

**7. Zeri diozu beldurra?** Une honetan Vocento, Prisa, Polanco eta halako familei. Informazioa eta dirua mugitzen dutenen beldur naiz.

**8. Dagoeneko ez dituzu politikoa kritikatzen. Pena ematen dizute?** Talde industrialen esku daude. Talde erlijioso handiek ere botere hori daukate; Bush ebanje-



JOSETXO ARANTZABAL

Elgetan egin zuen Leo Bassi komikoak Euskal Herriko emanaldi bakarra, Bilboko saioa babesleen presioarengatik bertan behera geratu ostean. Zapatuan, elkarrizketa egiten qenbiltzala jakin zuen Santanderko saioa ere suspenditu egin ziotela. Ikusleek nahi dutena entzuteko eskubidea defendatzen du hark eta zin egin zuen kalean bada ere Santanderko saioa egin egingo duela.

listen esku dago, adibidez. Nahiago dut titiriteroekin sartu eta ez txotxongiloekin.

**9. Politikoki zuzena izatea ere fundamentalista da?** Monoteismoaren aurka

nago eta ez dut politikoki zuzen izate hori ulertzen.

**10. Arriskurik latzena zein da?** Ezjakintasuna. Ezjakintasun fundamentalista eta burgesa dago. Europarrok lo gaude.



### Biharamuna

Marijo Deogracias

### Elkarrizketaren ahotsak

Danbakara zer entzungo nuen jakin barik joan nintzen. Aitziber Aranburuzabalak aurreratu zidan *british pop* estiloan aritzen den taldea gustatuko zitzaidala. Asmatu zuen, gustatu zitzaidan Unnëa taldea; esan barik doa nire gustuko musika ere badela popa. Sorpresa polita hartu nuen Espaloian: gazte piloia, giro beroa, parte-hartzailea... Zoriondu nahi nituzke Goienako lankide ohiak.

Zapatuan beste ekitaldi jendetsu batean izan nintzen: Euskaldunan, emakumez inguratuta. Elena Lakak zioen moduan, “hainbeste emakumez inguratuta egoteak ez dakit zer eragiten didan”, eta, egia esateko, emakumeak bi mila zirela jakinda, uff!! Ekitaldia polita izan zen, entretenigarria. Virginia Imazek Ahotsak-en ekimenari irribarrea erantzen lagundu zuen. Estitxu Fernandezek bikain irakurri zuen adierazpena; Natalia Serrano motel samar aritu zen, eta aurretik Estitxuk, euskaraz, eta Beatriz Molek frantsesez eman zioten indarra galdu zuen mezuak. Gara-ko firma bako kronikak zioen atzo “Ahotsak-ek esku bat bota dio prozesuari, PPrentaste bikainaren ostean”. Ez dakit. Emakumeok bake prozesuan parte hartze aktiboa aldarrikatu ostean, ekintzetara jotzeko unea da. Ezin dugu Bilboko mezuak zioen “elkarrizketaren bidea erabili dezatela” esaten segi. Agian, Zapaterori elkarrizketa eskatu beharko genioke, ausardiaz jardun dezala eskatzeko. Agian, guri, emakumeoi, gizonetako politikariei baino jaramon gehiago egingo digu. Ahots asko gara eta emakumeonei gizonetakoan gehitu ezker, gehiago.

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

WEBGUNEAN ➔ [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

**smsoinu**

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Trikitixa**  
Bexamela ta pastela (Maizta ta hiri) | **BEXAMELA**  
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**  
Hik lan eta nik jai (Tajia) | **HIK**  
Itsas ontzi batei (Kaxano) | **ITSAS**  
Kupela (Eneko eta Larraga) | **KUPELA**  
Mila galdere (Aitz/Maiden) | **MILAI**  
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**  
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**  
Txanpon baten truke (Aitz/Maiden) | **TXANPON**

**Himnoak**  
Eibar | **EIBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Reala | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Herrikoiak**  
Bagarei | **BAGAREI**  
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)

**LOGOAK** (SMS 1)  
**KODEA**

**KURRI4** | **ADARIAK** | **MUSKARIA** | **EGUZKILORE1**  
**EH1** | **BABAK** | **KALABERAT** | **EGUZKILORE2**  
**BILBO** | **BERAKATZAK** | **POPATIK** | **EGUZKILORE3**

**OHARRAK**  
**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde ematea duan eta Ki jaitziera bakarrak ordaintu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea duan dira.  
\* Euskaltel deitu: 900 84 02 00 telefonora. / \*\* Vodafone: deitu 123+ / \*\*\* Movistar: deitu 609+  
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzaitegun abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.